

ataria

Herritarren, sabelen eta produktuen ostatu

Zientzia dibulgazioa

*Bertsolaritza eta zientzia uztartuz,
Topic aretora helduko da, asteazkenean,
'Jakinduriek mundue erreko dau' emanaldia*

2019-05-17
1.058 zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus



M26



Tolosako alkategaien mahai ingurua

**Maiatzak 20,
astelehena,
18:30etik aurrera,
Topic-en.**

zuzenean Ataria.eus-en

- Olatz Peon (EAJ)
- Andu Martinez de Rituerto (EH Bildu)
- Joxe Mari Villanueva (PSE-EE)
- Peio Atxukarro (PP)
- Iñigo Cabieces (Elkarrekin Podemos)



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGI.COM



Gazte gara gazte

Udaberria ume denborako inozentzia eta igno-
rantzia omen da, gauzak lehen aldiz egitea-
ren txinparta, lo kuluxka bat kotoizko main-
diretan.

Baina berehala heltzen da uda: heldu
gaztea edo gazte heldua zarenekoa, ener-
giaz eta izerdiz blaitutako garaia, bizitza
bete-betea. Uda sargoriari, bizitzaren udaz-
kena gailentzen zaion arte...

Baina, bizitza sekula baino aktiboago bizi
behar duzula esaten dizuten sasoiari (gazta-
roan, uda partean), izerdiaren eraginez
maindireak azalari itsatsita zaudela, hara
non agertzen zaizun eltxo zikin bat, *bzz bzz*,
zuri loa eteten, kosk eta kosk, azalean ziri-
ka, eskuak elkarren kontra igurzten, «ez
zara libratuko» esanez bezala. Gaztetasu-
nak ere baditu bere ajeak.

Orain arte ikasketen maindiretan babestu naiz, artean
betebehar nagusi (eta ia bakarra) ikastea nuela. Orain da-

**Gaztetasunaren definizio
hegemonikoa, ordea, zurrunezia zait,
derrigor. Horrela, badirudi gaztaroa
trantsizio garaia dela, gero etorriko den
bizitzaren itxarongela.**

toz komeriak, ikasketa (formalak) amaituta, zapaldu be-
harreko bidea markatuta ez dagoenean. Uda hasieran
nago. Hanken dardarizoa disimulatzen saiatzen naiz. Bai-
na, berez, kosk-kosk deseroso bat nabaritzen dut gorputz
guztian: oinazpian, sabelean, sudur puntan. Kuriositatea,
geldi egon ezina, gogoia. Egindako pauso bakoitzeko, bi

atzera ez ote ditudan eman. Ametsak eta
proiektuak. Azkura sotil bat gorputz osoan.

Gaztetasunaren definizio hegemonikoa,
ordea (parranda-*carpe diem* gazte prototi-
pikoarena), zurrunezia zait, derrigor. Ho-
rrrela, badirudi gaztaroa trantsizio garaia
dela, gero etorriko den bizitzaren itxarongela.
Ikasteko garaia, biltegia prestatzea,
gera datorrenarako. «Geroko bizitza» hori
iluna omen, orduan, ahal dela aprobetxatu,
zer gerta ere. Ez pentsatu; hil eta gero, salda
bero. Pertsona oso ez garen neurrian, lan-
indar merkea gara; esperientzia gutxi du-

gun neurrian, gaitzesteko moduko iritziak ditugu, baina,
don't worry be happy! Helduko diegu garagardoei liburuei
baino estuago, eta egingo diegu irribarre bizitzari. Gero,
«gazteak dira etorkizuna» eta gorbatahun erretolika hori
guztia...

Gaztetasuna gainbaloratuta dago, mito bat da, eraikia.
Ez da beste bizitzako arak baino hobea, beste bat besterik
ez da. Ze, eltxoak ez badira, izango dira alergiak udabe-
rrian, eta ospelak neguan. Koskaka ari bazaizkigu, bizirik
gauden seinale, eta ez da gutxi!



AINHOA MENDILUZE
KALE KANTOITIK
107,6 FM

03

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEAK:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIK ez du
bere gain hartzen
aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Albizsketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gatzelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Tolomendi



Amalur Alvarez Gure Eskuko bozeramailea, aurkezpen ekitaldian, herritarrei azalpenak ematen. J. A.

Erabakitze bide berriak eraikitzen

Gure Eskuk erreferendumen aldeko herri-ekimen bat diseinatzen dihardu; Tolosan, asteazkenean aurkeztu zuten

Josu Artutxa Dorronsoro

Martxoaren 31n, Bilboko Euskaldunak eman zion hasiera, Gure Eskuk, fase berri bati. 6 urtetan egindakoari balioa eman, eta muga berriak ezartzeko baliatu zuten ekitaldia. Iazko giza-katean 175.000 lagunek hartu zuten parte. Goia, baina, herri galdeketeran jo dute, 218.000 herritarrengana heltzea lortuz. Tolosaldean, 13.000 biztanlek (%31) bozkatu zuten.

«Orain, ordea, urrats eraginkorragoak emateko garaia heldu da», azaldu zuen Amalur Alvarez dinamikako bozeramaile berriak, Tolosako kultur

etxean egindako aurkezpenean. Dozenaka herritarrek hartu zuten parte, eta, Alvarezen azalpenak entzun ondoren, galderak egiteko aukera izan zuten.

Ezer ez denean ziurra, dena da posible dio lelo berriak. «Erronka global bat da. Demokrazia deseraikitzearen arriskuaz jakitun, askatasuna jokoan dugu eta, beraz, alternatiba bat eraiki behar dugu». Horri lotuta, mundu mailako burujabetza mugimendu indartsuak, eta Europar Batasunaren nahiz Espainiako Estatuaren krisia mintzagai izan zituen Alvarezek: «Euskal Herrian aurrera egiteko aukera zabalak ditugu. Askok diru estatuturik gabeko nazioen aldeko aldarria egiten dutenak. Hemen ere, gehiengo bat dago erabaki propioak hartzearen alde, baita instituzio politikoetan ere».

Bost dira herri ekimenaren helburuak: ekintza kolektibo bat aurrera eramatea; erabakitzearen aldeko jarraia ikustaraztea; eragileekin elkarlan esparru berria eraikitzea; erakunde publikoei erreferenduma legeztatze eskatzea; eta estatus politikoa erabakitze tresna posible egitea. «Saretzetik mobilizatzea igaroko gara eta, azkenik, gauzatzera. Ez da bideorri estatiko bat izango. Epe luzeko begirada du, lurralde nortasuna zaintzen duena, parte hartzea bermatuz eta lanerako gutxieneko klabe batzurekin». Antolaketari dagokionez, hiru mailatan eratuko dituzte lanerako elkarguak: Euskal Herrian, lurraldeetan eta eskualde eta herrietan.

Gutxi-gorabehera urtebeteko iraupena izango duen prozesua jarri berri dute martxan. Une honetan, proposamena ezagutarazten eta herritarren ekarpenak jasotzen ari dira. Udan, oraindik heldu ez diren herritarrengana zuzentzeko asmoa dute, herrien egoera ezberdinak aztertuz. Urtea amaitu aurretik, berriz, elkarguneak aurkeztuko dituzte, eta barne lanketari ekingo diote. «Urtebete barru, hila-beteko mobilizazioaren ondoren, festa egun bat egingo dugu, markak gaindituko ditugula ospatzeko».

Oraindik proiektuari «forma ematen» ari badira ere, herriz herri asmoak partekatzen dihardute. Beñat Sarasola Tolosaldeko Gure Eskuko kideak azaldu zuenez, «eragiteko gaitasuna duten herritar eta kolektiboak tantaka izendatuz, guztiengana iritsi» nahi dute. Azkenik, bazkideei garrantzia eman nahi diete, figura kritikoa sustatu, eta ekarpenak egiteko, «behetik gorako demokrazia» garatu nahi dutelako. Interesa dutenek, www.gureesku.eus webgunean dute informazio osoa.

Saria, ez erretzeko arrazoiak ondoen islatzen dituenari

Tolosa. Hilaren 31n ospatuko den Tabakorik Gabeko Nazioarteko Eguna dela eta, Instagram bidezko argazki lehiaketa jarri dute abian, tabakoaren kontsumoa murrizteko helburuarekin. Erretzeari uzteko arrazoiak islatu behar dira. Argazkiak, *#ezerretzeko-zurearrazoiak* traolarekin partekatu edo tolosaldea@aecc.es helbidera bidali behar dira, asteartea baino lehen. Irabazleak 150 euroko saria jasoko du.

Harkaitz Cano, 'Fakirraren ahotsa'z, asteazkenean

Tolosa. Galtzaundi Euskara Taldeak asteazkenean egingo du Irakurle Taldearen saio berria. Harkaitz Cano idazlea bertan izango da, *Fakirraren ahotsa* bere azken irakurgaiaritzeko. Lasarteak irakurleek ematen duten 111 akademiaren saria jaso berri du eleberriagatik. 2011n ere, *Twist* lanarengatik, sari bera jaso zuen. Kultur etxean izango da saioa, 19:00etan, eta Yurre Ugartek gidatuko du.

Ogasun Higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko epea, abian

Tolosa. Udalak abian jarri du Ondasun Higiezinaren gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea, uztailaren 1a bitarte. Ekainaren 19a baino lehen helbideratutako ordainagiriak entitate finantzarioen kontu korronteetatik kobratuko dira. Helbideratu gabeko ordainagiriak, berriz, zergadunak adierazitako zerga helbidera bidaliko dira. Kasu horretan, www.tolosa.eus webgunean egin behar da ordainketa.

Urteko egunik magikoenak

Asteburuan Gau Zuria eta Lore eta Landare azoka hartuko ditu, Tolosa Zuria Loretan egitasmoak, kultur egitarau zabalarekin

J. Artutxa

Ia 40 urte dira, Anoetako Azpiazu Mintegiko Iñigo Azpiazuk eta Isabel Azurzak, larunbatero, Berdura plazan lore eta landare postua jartzen dutela. Hori dela eta, euren etxean aurkeztu zuten, atzo, aurtengo Tolosa Zuria Loretan egitasmoa. Proiektua Hiri Ekonomia osatzen duten eragileek elkarlanean sortu zuten eta, asteburuan, hamaika ekitaldi izango dira, Tolosaldean dagoen landare eta kultur zaletasuna sustatu asmoz.

«Kulturaz ari garela, ezin dugu herriko ondare garrantzitsuenetako batekin ahaztu». Hain justu, bihar, Museoen Nazioarteko Eguna ospatuko dute Topic-en. Hala ere, gaur ateak zabalduko dituzte. Idoia Otegi Topic-eko zuzendariak azaldu bezala, «hori da aurtengo ideia nagusia, eta bat dator gurekin». Musikarien laguntza izango dute, Gau Zuria ospatzeko. Museoko hiru gunetan joko dutela azaldu zuen, Amaia Lizaso Eduardo Mocoroa musika eskolako zuzendariak. «Plazer hutsa da, leku zoragarri horretan jotzea».

Horrez gain, zabaldutako berri duten *Eszenak & Istorioak* erakusketa ezagutzeko bisita gidatuak izango dira. Bide bide tabernak prestatutako koktel zuria dastatu aurretik. «Erakusketara joan nahi dutenek izena aurrez ematea eskatzen dugu, plaza mugatuak izango direlako».



Anoetako Azpiazu mintegian egin zuten, atzo, Tolosa Zuria Loretan egitasmoaren aurkezpena. J.A.

Aurten 10 urte beteko dira, Topic herriarrentzat zabaldutako zutela. Otegi azaldu zuen bezala, «gizarteari irekitako museo» da: «Museo bat ez da pieza ezberdinak biltzen dituen areto bat, herriarren inplikazioarekin batera, eragileekin elkarlanean, ekitaldi ugari hartzen dituen gunea, baizik».

Topic-ekoak, ordea, ez dira bisita gidatu bakarrak izango. Beste behin ere, gauez, Alde Zaharra eta Santa Maria eliza gertutik ezagutzeko aukera izango da. Brian Cullen Tolosaldea Tour-eko gidaren laguntzaz, lastargiekin joango dira, ostiralean (euskaraz) eta larunbatean (gaztelaniaz). «Izena aurrez ematea eskatzen dugu, bisita kalitate handiegokoa izan dadin».

Lorategi erraldoi bat, erdigunean

Gaurkoa «gau magikoa» izango dela dio Nerea Letamendia Azoka eta Turismo zinegotziak. «Jarduera gomendaga-

riak dira, baina ez ostiralekoak soilik». Ohiturari jarraituz, Tolosan, azoka ospatuko dute bihar. Berezia izango da, izan ere, San Isidro egunaren ondoren eta, Lore eta Landare azokaren aitzakian, baserriarrak omenduko dituzte, musikari eta dantzarekin. «Gainera, betiko postuez gain, mintegi berriak izango dira Berdura plazan».

Azoka berezi hori ospatu den bakoitzean, lorez atondu izan dute herria. Aurten, Gaztelako Atearen txanda izango da. Gipuzkoako loradenden elkarteak *Berrikuntzaren atea* deituriko lorategi erraldoi bat ezarriko du bertan. Amaitzeko, goizean baserriarrez betetako Zerkausia Musika Bandako kideek hartuko dute arratsaldean, Musikariaren barruan, 25. urtez jarraian eskainiko dutelako kontzertua. «Bisitarientzat, beraz, Tolosa ezagutzeko beste modu bat izango da», gaineratu zuen Letamendiak.

tolosaldeko
ataria

ataria
irratia

ataria
internet

ataria
prentsa

Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Bilgune baten faltan, Errebote plazan bildu ohi izan dira Lurgatz taldeko kideak. ATARIA

Toki bat behar dute, egoteko eta egiteko

Lurgatz talde feministak lehen urteurrena ospatuko du, datorren astean; «indartsu» daude, borrokarekin segitzeko

Jon Miranda

Talde antikapitalista, ekologista, antolakuntzaz integratzailea, asanblearioa, apartidista, dinamikoa, kritikoa eta autokritikoa. Horrela definitzen du bere burua, Amasa-Villabonako Lurgatz talde feministak. Duela urtebete egindako jardunaldi feministan eratu zuten taldea, eta oinarri ideologikoak zehaztearekin batera jarri zioten izena mugimenduari, AEBetan 1954an grabatutako *La sal de la tierra* pelikula gogoan hartuta: «Lehen film feministatzat dute askok, eta ederra iruditu zitzaigun. Nahiz eta lurra emankorra izan, gatzik ez badu, ezin da bertan erein. Guk ere, iazko Martxoaren 8an erein zen hura hazten laguntzeko, espazio bat eskaini nahi genuen».

Elkar ezagutzea izan zen lehen pausoa eta, hasieratik, herriko belaunaldi ezberdinetako emakumeak batu ziren taldera. «Emakumeak pertsona autonomo, emantzipatu, baliodun eta eskubidedunak garenaren ideian sakondu nahi dugu eta, edozein dela gure familiaren egoera, gure jatorri soziala, gure ideologia politikoa edo gure pentsaera espiritual, libreak garelako gure bizitzan eta gure gorputzen gainean erabakitze-

ko. Gauza jakina dela dirudi, baina, gure eguneroko bizitzan, denok dakigu errealitateetik urrun dagoen ametsa dela oraindik», dio taldekideetako batek.

Lurgatz martxan jartzearekin batera, lanean hasi ziren indarkeria matxistaren aurkako protokoloa diseinatzen, udalarekin elkarlanean. Iazko Santio festetan, Emagin taldea festetara gonbidatu eta, herriko beste eragileekin batera, parte hartu zuten txosna batzordean. Gerora, azaroaren 25aren bueltan ekitaldi gehiago antolatu zituzten, eta Amasa-Villabonako kideek aktiboki parte hartu dute Aiztondoko Asanblada Feministan, aurtengo Martxoaren 8an.

Biltzeko toki baten beharra

Egitasmoak antolatzen hasi ahala konTURATU ziren, herrian emakumeentzako espazio baten falta zegoela. «Amasa-Villabonak gabezia hori zuela ikusi genuen, emakumeok biltzeko toki aproposik ez genuela. Hainbat jatorritako emakumeak bizi gara herrian, eta guztion bizitzak erdigunera ekartzeko espazio bat behar dugu. Nola gerturatuko gara emakume horiengana, espazio bat ematen ez badiegu?». Toki baten beharra aldarrikatu dute Lurgatzeko kideek, «elkarrengandik ikasteko, elkarrekin nahasteko, beste esperientzietatik ikasteko, espektatibak konpartitzeko, elkarbizitza lantzeko».

Herritar gisa, talde feministako kideek behar hori Amasa-Villabonako Udalera

I. URTEMUGAKO EGITARAUA

MAIATZAK 21, ASTEARTEA

19:00. Rosa Cobos teorialari feministaren bideo emanaldia, Salbadora erretiratuen etxean.

Ondoren. Solasaldia.

MAIATZAK 25, LARUNBATA

10:00. Asanblada irekia.

12:30. Zizka-mizkak.

eraman zuten iaz, eta ate guztiak «itxita» topatu zituztela esan dute. Udal jabetzako den Kale Nagusiko etxebizitza aurrena, herriko beste lokal baten alokairua hurrena... Udal gobernuak proposamenei aurrerabiderik ez diela eman esan dute. «Eztabaida horretan, zilegitasuna kendu nahi izan digute, eta gutxietsi egin gaituzte. Emakumeen ahotsa ez genuela ordezkatzen esan digute, talde anitza izanik alderdi jakin batekin lotu nahi izan gaituzte, gezurretan aritu dira... Oso gogorra izan da, inpotentzia handia sentitu dugu».

Gaur egun bizi dugun prozesu sozialean, Lurgatzeko kideek uste dute, talde feminista bat ezin dela beste edozein talde bezala hartu. «Alderdi politiko batzuk feminismoa ez badute giza eskubideen aldeko borroka bezala ulertzen, nekez batuko dira elkarlanera». Urtebete honetan, bidean oztopo asko topatu dituzten arren, asko ikasi dutela aipatu dute: «Orain arte gure bizitzetan existitzen ez zen tratatu txar instituzionala identifikatzen ikasi dugu, adibidez».

Lurgatzek uste du euren esentzia ez dela soilik udalarekin borroka betean aritzea; harago doa talde feminista baten egitekoa eta, bidean indar asko galdu duten arren, lanean jarraitu dute urtebete honetan. Bilgune baten faltan, Errebote plazan elkartu izan dira, eta Villabonako Gaztexasen ere topatu dute elkarrekin egoteko gunea: «Onddo gazte asanbladakoei eskerrak eman behar dizkiegu, izugarri ondo portatu baitira gurekin. Babestuta egoteko espazio bat eskaini digute».

Herriko emakumeen behar horri aho-tsa ematen jarraituko dutela aipatu dute, eta udal hauteskundeen ondorengo udalbatza berriari ere helaraziko diotela gabezia hori. Bien bitartean, gizarte eragile den neurrian, Lurgatzek herriko beste taldeekin harremana izango du, «heteropatriarkatua suntsitzeko borrokan sakontzeko». Helburu hori lortzeko bidean, dagoeneko, urtebete egin dute, eta ospakizunak datorren astean egingo dituzte.

KANPAINA TOLOSALDEAN MAIATZAK 17, OSTIRALA

Irura. Herriko plazan Gorka Murua EH Bilduko alkategaiarekin solasean aritzeko aukera izango da. Hautagaiak herritarren galderak erantzunango ditu. Ondoren mokadutxoak izango dira.

Asteasu. Asteasu Batuz hautagaitzaren aurkezpen ekitaldia herriko plazan, 19:00etan. Bertsolariak, trikitilariak eta pintxoak izango dira.

Tolosa. Andu Martinez de Rituerto EH Bilduko alkategaia Zerkausion, 19:00etan, herritarren galderak erantzuten izango da.

Ikaztegieta. EH Bilduk udal hauteskundeetara aurkezten duen zerrendaren eta programaren aurkezpena, plazan, 19:00etan.

Ibarra. San Bartolome plazan, 19:30ean, Ibarako EH Bilduk ekitaldia egingo du. Arkaitz Rodriguez eta Igor Zapiain alkategaia izango dira bertan.

Zizurkil. EH Bilduk, 19:00etan, hautagaien haima bat jarriko du Joxe Arregi plazan. Ondoren trikipoteoa.

Amezketeta. EH Bilduren hautagaitzaren aurkezpen ekitaldia, 19:30ean, kultur etxeko aretoan. Amaieran lunch-a izango da.

MAIATZAK 18, LARUNBATA

Lizartza. EH Bilduk, herriko plazan, 19:30ean, ekitaldia egingo du. Barrikotea, talogileak eta musika izango dira.

Zizurkil. EH Bilduk, Pedro Mari Otaño plazan, hautagaien haima jarriko du.

Anoeta. Anoetako EH Bilduk udal hauteskundeetan aurkezten duen zerrendaren aurkezpen ekitaldia, 12:00etan, herriko plazan. Ondoren, hamaiketakoak izango dira.



ELKARREKIN PODEMOSEN EKITALDIA TOLOSAN

Elkarrekin Podemos koalizioak agerraldia egin zuen, atzo, Tolosako Trianguloan. Iñigo Cabieces Tolosarako alkategaia, Maria Valiente diputatu nagusi izateko hautagaiak eta Carmen Salido Batzar Nagusietarako hautagaiak hartu zuten parte. IRATI SAIZAR



JOSEBA GOMEZ DA EAJREN ALKATEGAIA ASTEASUN

Honako herritar hauek osatzen dute hautagaia: 1. Joseba Gomez, 2. Luke Uribe Etxeberria, 3. Maria Jesus Hidalgo, 4. Iker Garmendia, 5. Jose Miguel Soraluze, 6. Milton Jimmy Teixeira, 7. Miren Idoia Imaz, 8. Alberto Esteban Azpiroz. 9. Jose Antonio Otegi. ATARIA

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Emeterio Arrese 8 kalearen atzetik doan errepidea da berritu dutena. ATARIA

Leaburu eta Ibarra batzen dituen bidea berritu dute

Ibarratik Leaburu eta Gaztelura doan bide bat berreskuratu du udalak eta, zolaketa lanak eginda, erabilgarri jarri dute

Irati Saizar Artola

Ibarrako Udalak Leaburu Ibarrarekin lotzen duen herri bidea berreskuratu du, eta oinezkoentzat erabilgarri dago, dagoeneko. Udalekoek azaldu dutenez, duela urte batzuk, Leaburura eta Gaztelura joateko bide bakarra omen zen, GI-3212 errepidea egin arte.

Erabilera ezak bidea desagertzea ekarri zuen, eta udalak biztanle-gune gisa berreskuratu nahi izan du, Eme-

terio Arrese 8 kalearen atzetik irteten den bide hori. «Oinezkoek euren aisialdi modura erabil dezaten nahi dugu eta, bestetik, GI-3212 errepideak oinezkoentzat sor ditzakeen arriskuak ekidin nahi ditugu, auto ugari ibiltzen baita bide horretan, eta ez baitago espaloirik», azaldu dute.

Herri-bidea berreskuratzeko lanean, zolaketa lanak, seinaleztapenak, euri uren bideratzeak, inguruak txukuntzea eta argiteria egokitu dituzte. Proiektu horren bitartez hainbat helburu lortu ditu udalak: «Berreskuratzearaz gain, herritarren mugikortasuna hobetu eta arriskuak ekiditea bultzatu dugu, baita herritarren bizi kalitatea hobetzea ere».

Gaur emango diote hasiera, Ibarrako V. mus txapelketari

Ibarra. Xepla elkartearen hasiko da V. mus txapelketa herrikoia, gaur, 22:00etan. Uztailera bitarte, ostiraleror, 22:00etan, herriko taberna ezberdinetan jokatu dute txapelketa; ekainaren 8an eta 15an, ordea, larunbatak, 16:00etan izango dira. Finala uztailaren 19an izango da, 22:00etan, Izaskun jatetxean.

Larresorokoen bisita jasoko dute igandean, Leaburun

Leaburu-Txarama. Senidetze eguna ospatuko dute, datorren igandean, Leaburu-Txaramako herritarrek, Lapurdiko Larresorokoekin batera. 11:00etan iritsiko dira Leaburuko plazara, eta dantzariak harrera egingo diete. Hamaietakoaren ostean, pilota partidak jokatu dituzte, eta guztiek elkarrekin bazkalduko dute.

Kale garbiketa zerbitzua hobetuko du Ibarrako Udalak

Kale garbiketa zerbitzua hobetzeaz gain, Tolosaldeko Emakumeen Etxea eta Euskararen Mahaia babestu ditu

Irati Urdalleta Lete

Azken osoko bilkuran onartutako aldaketei esker, kale garbiketarako makina berria edukiko dute eta, astelehenetan, ohikoaz gain, zerbitzu osagarri bat egingo dute, presiozko makinarekin gune zehatz batzuen garbiketa indartuz. 230.000 euroko kostua izango dute, guztira, zerbitzu horiek; hau da, orain artekoa baino 45.000 euro altuagoa. Modu horretan, udalak herria garbi izateko duen konpromisoa berretsi nahi izan du.

Horrez gain, Ibarrako Udalak hainbat atxikipen adierazi zituen, udal ple-no berean. Alde batetik, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen egitasmoa onartzeko eta hura garatzeko adierazpen instituzionala babestu zuen eta, beste aldetik, Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren inguruko konpromiso adierazpena onartu zuen.

Gainera, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen inguruan, hainbat konpromiso hartu ditu Ibarrako Udalak. Besteak beste, «egitasmoa babestea, etxeari jarduera garatzeko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak jartzea, eta proiektua sozializatu eta ikusgarri egitea nahi dugu».

Tolosaldeko Euskararen Mahaiari dagokionean, eskualde ikuspegiko hizkuntza plangintzarekin bat egin du Ibarrako Udalak. «Mahaia garatzeko prozesuan parte hartzeko ardura zein adostutako egitasmo zehatzak, ekonomikoki sostengatzeko konpromisoa hartu dugu». Izan ere, udaletik azaldu dutenez, Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren misio eta helburuekin bat egin dute, batez ere, eskualdean euskara indarberritu eta bere erabilera normalizatzea nahi dutelako, «benetako komunikazio eta kohesio hizkuntza nagusia izan dadin, bere lur eremu osoan».



ASTELEHENETIK
LARUNBATERA
9:00-20:00

Udaberrian, ZURE LOREEZ HARRO!

Etor zaitez Aduna Gardenera
eta zureak aukeratu!

Zubitxiki, 17
20150 Aduna /Gipuzkoa
T. 943 93 03 50
www.adunagarden.com



Aduna
garden



IRENE CAMINOS, BERRIRO BIGARREN

Espainiako Koparako baliagarria izan den trial proba jokatu zuten aurreko asteburuan, Torredembarran. Irene Caminos tolosarrak bigarren postua lortu zuen, Vera Baronen atzetik. Espainiako Kopako bigarren proba puntuagarria izan zen, eta lehenengoan ere emaitza bera lortu zuen Caminosek, eta aurkari bera geratu zen aurretik. Caminosek azaldu duenez, «bizikleta gaineko sentsazioak ez ziren izan oso onak. Lanean jarraitu beharko dugu». ATARIA

Berrehundik gora haur, futboleak, Larramendin

Imanol Garcia Landa Tolosa

Larramendi Auzo Elkartek bigarren urtez antolatu du, Larramendiko 4x4 Futbol Txapelketa. Bihar egingo dute txapelketa, 12:00etan hasita. Guztira, 53 taldek eman dute izea, horietatik 28 benjamin mailakoak, eta 25 alebin mailakoak. Lau parte hartzaile izango dira talde bakoitzean, beraz, 212 neska eta mutilak parte hartuko dute txapelketan. Eguerdian hasiko da, eta finalak 19:30ak inguruan izango direla aurreikusten dute. Arkauteko parkean jokatu dute txapelketa, belar gainean, eta auzoari bizia ematea da egitasmoaren helburu nagusia. Antolatzaileek barra jarriko dute, eta ogitartekoak eta pintxoak ere salgai jarriko dituzte, egun guztian zehar.

Txapelketa guztia jarraian izango da. Lehen fasean, lau minutuko partidak izango dira. Aurrera egiten dutenek hiru minutuko bi zati jokatu dituzte, minutu bateko atsedenarekin.

Orain dela bi urte auzoko festetan antolatu zuten lehen futbol txapelketa. «Festaz gain horrelako ekitaldi bat antolatzeak lan asko eskatzen zuela ikusi genuen, eta pentsatu genuen data maiatzera aldatzea. Iaz egin genuen lehen aldiz. Arrakasta handia izan zuen, eta eguraldiak ere lagundu zuen, eta berriro animatu gara antolatzeraz», azaldu dute auzo elkarteak kideek. Eguraldi iragarpenei begira daude, aldiro, antolatzaileak. «Gutxienez, euririk ez badu egiten, pozik egongo gara. Euria egingo balu, Arkaute etxeraren gela bat prestatuko genuke, hurrek aldatzeko aukera izan dezaten».



Larramendi Auzo Elkarteko kideak, txapelketaren aurkezpena. ATARIA

Zubeldia, Ruiz de Larramendi eta Elola, aurrera

Erredakzioa Tolosa

Tolosako lau eta erdiko San Joan Pilota Txapelketaren lehen jardunaldian, jubeniletan Zubeldiak (Intxurre), etorkizunekoetan Ruiz de Larramendik (Lapke) eta elitekoetan Elolak (Aurrera-Tolosa) egin dute aurrera. Zubeldiak 22-15 irabazi zion Etxanizi (Bergara). Lehen zatia oso parekatua izan zen (11-11), eta bigarrenengoan Zubeldia freskoago aritu zen. Ruiz de Larramendik 22-18 irabazi zion Olaetxeari (Irurtzun). Partida ederra eskaini zuten bi pilotariek, tanto oso politik eginez eta ia hutsegiterik egin gabe. Elolak 22-16 irabazi zion Zubiriari (Zazpi-Iturri). Min handia egin zuen Elolak sakearekin eta pilotari abiadura emanez.

San Joan Txapelketaren bigarren jardunaldia bihar jokatu da. Tolosako Beotibar pilotalekuan, 11:00etan hasiko den jaialdian. Jubeniletan Senar (Lapke) eta Altuna (Aurrera-Tolosa) ariko dira, nor baino nor. Aurreko asteburuan Josetxo Ezkuraren finala jokatu zuten bi pilotariek, eta orduan Senarrek irabazi zuen. Etorkizunekoetan mailan, Arribillaga (Ardoi) eta Osa (Gazteleku) ariko dira elkarren aurka. Elite mailan Espinalek (Huarte) eta Alain Prieto k jokatu dute elkarren aurka.

Larrarte eta Amondarain, irabazle Arabako Itzulian

Tolosa/Ibarra. Pistako txirrindularitzan hainbat garaipen lortu dituzte Eukene Larrarte tolosarrak (Gipuzkoa Ogiberri) eta Naia Amondarain ibartarrak (Murias Limousin), eta errepidekoan ere ari dira txapelak pilatzen. Aurreko asteburuan lehenengo Arabako Itzulian izan da jokoan, eta Larrarte 23 urte azpikoetan izan da txapelduna, eta Amondarain junior mailan. Horrez gain, Larrarte Euskaldun Torneoaren sailkapenean lider jarri da.

Miren Larrarte, bigarren frontball modalitatean

Bidania-Goiatz/Anoeta. Iruñean jokatu zuten Espainiako Frontball Txapelketa, eta Miren Larrarte pilotari bidaniarrak bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen, Patri Espinarren aurka finalean galdu ostean. Bi setetan irabazi zuen Espinarrek, 10-7 eta 10-9 eginez, hurrenez hurren. Final borrokatua izan zen, bi pilotarien artean. Finalerdietan Larrartek Maider Mendizabal anoetarrari irabazi zion, 2-0 gailenduz markagailu orokorrean. Mendizabalek sare sozialean bitartez Larrarte zoriondu zuen, bere aurkako finalerdia irabazteagatik, eta hamazazpi urteko bidaniarrari pilotan etorkizun handia ikusten diola gaineratu zuen.

TEEPeko bi senior taldeek, igoera faseko partidak

Tolosa. TEEP Samaniego-Orixe Tolosaldea areto futboleko senior mutilen bi taldeek igoera faseko partida bana jokatu dute, gaur, Tolosako Uzturpe frontoian. Gipuzkoako lehen mailako taldeak 20:30ean jokatu du, Jaixki AFT taldearen aurka. Hirugarren mailako taldeak ondoren jokatu du, Zarautz KE taldearen aurka, 22:00etan hasiko den partidari. TEEP klubetik herritarrei deialdia egin diete, bertara joan eta bi taldeak animatzeko.



Adunak aurrera eta Amasa-Villabona kanpoan, Herriartekoan

Erredakzioa

Aurrera doa Herriarteko Pilota Txapelketa, hainbat modalitatetan, eta dagoeneko eskuzkoan final-zortzirenak izango dira jokoan, asteburuan. Aurreko kanporaketan, Adunak aurrera egin du, eta Amasa-Villabona kanpoan geratu da. Adunak 2-1 galdu zuen Bergararen aurkako itzulerako neurketa, baina orokorrean kanporaketa gainditu zuten, joanekoan 2-1 irabazita, eta guztira tanto gehiago egin ondoren. Bergaran jokatu dute partidetan, kadeetan 7-22 irabazi zuten adunarrek, eta jubeniletan 22-12 eta nagusitan 22-21 galdu. Hurrengo kanporaketa Hernaniren aurka dute adunarrek, eta etxean jokatu dituzte joaneko neurketak, gaur, 19:30ean hasita.

Amasa-Villabonak ezin izan du Andoainen aurkako kanporaketa irabazi,

orokorrean markagailua 4-2 geratu baita, andoainarren alde. Andoainen jokatu dute itzulerako partidetan Amasa-Villabonako kadeteek 22-16 eta jubenilek 22-10 galdu zuten, eta nagusiek 7-22 irabazi.

Eskuzkoan beste eskualdeko herri batzuk sartuko dira, asteburuan, lehian. Tolosak eta Bidania-Goiatzek elkarren aurka jokatu dute kanporaketa, eta joaneko partidak bihar izango dira, Bidanian, 18:30ean. Altzok Oñati du aurkari, eta bihar jokatu dute, 17:00etan, Altzon. Asteasuk Zestoa izan du aurrez aurre, eta bihar jokatu dute, Zestoa, 18:00etan.

Gomazko paletan Tolosa Elgoibarraren aurka ariko da, bihar, 18:00etan, Tolosako Beotibar frontoian. Anoetak Azpeitia izango du aurkari, eta igandean jokatu dituzte partidak, Urrestillan, 17:00etan hasita.



Nafarroa etorb. 13 behea • TOLOSA
670 41 79 22 • Tel./Faxa: 943 65 0313

ESKUZ

BENJAMINAK A

BERASTEGI,

3. JARDUNALDIA

Ostirala, 18:30

Aranalde-Navas-Baleztena

Aizpurua-Odriozabala

Tolosa-Yurrita

Maioz-Maioz

Zubillaga-Tejeria

Vidaurreta-Lacarra

Aseginolaza-Aldaz-Martinez

Lacarra-Erro

ALKIZA,

3. JARDUNALDIA

Ostirala, 18:30

Altuna-Arandia

Ormaetxea-Urkola-Elola

Iglesias-Aristondo

Dieguez-Garmendia

Domintxin-Bercianos-Lasarte

Garcia-Estevez

Gonzalez-Zufiria

Gorostidi-Galarza

ASTEASU,

3. JARDUNALDIA

Larunbata, 16:15

Lararte-Garmendia

Garmendia-Hernandez

Goñi-Karrera

Otaegi-Mayoz

IBARRA,

3. JARDUNALDIA

Larunbata, 16:15

Argote-Del Rio

Iraola-Navarro

Garaikoetxea-Otegi

Arruabarrena-Altuna

Artola-Freitas Dos Santos

Zaldua-Etxetxipia-Lasa

Karrera-Artola-Belaunzaran

Ariño-Altuna

BENJAMINAK B

VILLABONA,

3. JARDUNALDIA

Ostirala, 17:30

Lanzeta-Iraola

Gibelalde-Paulino-Artola

Goenaga-Aranzabe

Etxetxipia-Maritxalar-Castro

Gurrutxaga-Gartzia

Artola-Elosegi-Galarraga

Aburuza-Barriola

Arteaga-Nazabal

Urruzola-Gorriti

Astibia-Aizpuru

ALBIZTUR,

3. JARDUNALDIA

Ostirala, 18:30

Dieguez-Albizu

Estevez-Labaka

Otaño-Gurrutxaga

Herrero-Iturrioz-Garmendia

Ezeiza-Juantorena

Mujika-Altuna

Aizpurua-Gaztañaga

Ezkioaga-Iruretagoiena

Aldalur-Arandia

Setien-Gonzalez

ANOETA,

3. JARDUNALDIA

Larunbata, 10:00

Saralegi-Saralegi

Xabala-Aranbarri

Otegi-Erro

Ruiz-Eizagirre

Mintegi-Acosta

Aperribai-Esnaola

Azpilikueta-Mendia

Irastorza-Agirre

Agirrezabal-Irazusta

Arruti-Val-Roteta

ALEBINAK

ALTZO,

3. JARDUNALDIA

Ostirala, 18:30

Labaien-Ugartemendia

Castro-Iglesias

Argote-Balerdi

Lararte-Oñate

Artola-Karrera

Murua-Elola

Izagirre-Seguroa

Jauregi-Mendia

Aristeta-Barbero

Fresneda-Irastorza

ZIZURKIL,

3. JARDUNALDIA

Ostirala, 18:30

Insausti-Lopetegi

Iraola-Zabala-Irazu

Zufiria-Aranburu

Aburuza-Irazu

Meulman-Otaegi

Goñi-Iturrioz

Goenaga-Olasagasti

Caminos-Gartzia-Urbiet

Iparragirre-Aranburu

Goikoetxea-Rozas-Olano

IKAZTEGIETA,

3. JARDUNALDIA

Ostirala, 18:30

Ugartemendia-Gorostiaga

Alvarez-Garzia-Gorostiaga

Zubillaga-Lobo

Cestau-Aburuza

Altuna-Perurena

Ayestaran-Saralegi

Arrieta-Arruabarrena

Zaldua-Lanzeta

Elola-Unanue

Agirrezabal-Lanzeta

PALAZ

ALEBINAK

BIDANIA-GOITZ,

2. JARDUNALDIA

Ostirala, 18:00

Zabala-Iruretagoiena

Agirre-Etxarri

Zubillaga-Polo

Luluaga-Iturrioz

Juanena-Beobide

Ezeiza-Juantorena

Sarasola-Navarro

Goikoetxea-Amundarain-Lasa

KADETE-JUBENILAK

BIDANIA-GOITZ,

2. JARDUNALDIA

Ostirala, 18:00

Olano-Karrera

Urkola-Herrero

Iturrioz-Aranburu

Agirre-Murua



Etixerako lanak, bai ala ez?

Gaur egungo gazteok etxerako lan ugari izaten ditugu, baina, beharrezkoak al dira? Egia al da, lagun-
du egiten dutela gauzak hobeto ulertzen?

Hasteko, nire ustez ez dira beharrezkoak. Horretarako eskolara etortzen gara; baina, hori bai, nahi duenak egin ditzake. Nire ustez laguntzen dute, baldin eta gozoz egiten badira, baina gogorik gabe ez. Azkenean, ordu-extra-
k dira.

Gainera, leku batzuetan etxerako lanak debekatuta daude. Adibidez, zenbait herrialdetan eskolan esaten diete, etxean familiarekin egon eta ondo pasatu behar dutela. Gazteek esaten dute, etxerako lanik gabe, hurrengo egune-

an eskolara motibatuago joaten direla, badakitelako ez dietela etxerako lanik bidaliko.

Azkenean, guk, gazteok, eskolan 5-6 ordu pasatzen ditugu, eta etxerako lanak edukita ez dugu denborarik deskonektatzeko. Eskolan ondo doazenei, hau da, ulertzen dutenei, etxerako lanak ez die ezer askorik aportatzen, eta agobiatu egiten dira. Oso ondo ez doazenek, aldiz, ulertzen ez dute-nez, ezin dituzte egin, eta etsi egiten dute. Orduan, hurrengo egunean, ez dira eskolara motibatuta joango.

Beraz, pentsatzen dut etxerako lanik gabe gazteak eskolara motibatuago joango direla, eta eskolatik deskonektatzeko denbora edukiko dutela.

Sergio Diaz

Homeschooling

Homeschoolinga erakusteko eta irakasteko metodo bat da. Umeek eskolan ikasi beharrean, etxean ikasten dute gurasoekin. Euskal Herrian gero eta kasu gehiago dauden arren, ez da oso ohikoa. Baina, zer onura ditu etxean irakasteak? Eta metodo hau legeak onartzen al du? Nire ustez, irakaskuntza metodo honek, beste gauza guztiek bezala, bere alde onak eta txarrak ditu.

Luixa Reizabal psikologoaren arabera, ume bat etxean hezteak alde onak eta alde txarrak ditu. Etxean ikasten baduzu, arreta zuregan jartzen dute, eta zure erritmora egokitzen dira klaseak. Eskolan, berriz, gero eta ikasle gehiago daude, eta ikasketak prozesua ez da hain pertsonalizatua. Bestalde, etxean bakarrik egoten direnez, denbora gutxiago pasatzen dute beraien adineko umeekin, eta zailagoa da lagunak egitea.

Homeschoolinga Espainian legeak erabat onartu ez duen arren, Amerikar Estatu Batuetan gero eta ume gehiagok ikasten dute etxean. Esate baterako, Hernan familia ohiko eskola sistemaren aurkakoa da, eta euren bi seme-alabak etxean hazten dituzte. Duela gutxira arte, diplomatutako irakaskeek bakarrik eman zitzaketen eskolak. Gaur egun, eskola garaian dauden haurren %3 etxean hezten dira. Normalean, gurasoek erlijioagatik aukeratzen dute hezkuntza mota hau, edo eskola sistemaren aurka daudelako.

Beraz, ondoriozta dezakegu, hezkuntza eredu desberdinak daudela eta, aukeratzen dena aukeratuta ere, guztiak direla errespetagarri.

Araia Mendia



2017 urte amaieran eraberritu zuten Orexako ostata, Orexa Bizirik proiektuaren barruan. Taberna eta jatetxe zerbitzuez gain, denda bat ere badu. ATARIA

Ostatuak: eragile aktibo bat, erdigunean

Tolomendik eskualdeko ostatuen gaineko azterketa orokor bat egin berri du. Ondorioz, horien kudeaketa egokia bermatu nahian, lau saioko prestakuntza eskaintzen ari dira. Gainera, bertako produktuen erabilerari garrantzi berezia eman nahian, ekoizle eta saltzaileen arteko harremana indartu nahi dute.



Josu Artutxa Dorronsoro

Eskualdeko egitura-sisteman eragiteko sortu zuen, Tolomendi elkarteak, Jan Tolosaldea egitasmoa. Bertako ekoizle sareak produzitzen dituzten produktu eta elikagaien kontsumoa bultzatzea da helburua, estrategia hori aurrera eramatea alegia. Horretarako, hainbat eragilek esku hartzen dute elikadura kate horretan: ekoizleak, ostatuak edo ostalaritza lokalak, komertzio txikiak, udalak, sektoreko ordezkariak... Eta, noski, gizarteak ere bai, oro har.

Askotan esan ohi da, ostatuak jateko edo edateko soilik balio duten gu-
neak direla. Baina, berez, zer da ostatu bat? Zein dira bere oinarritzko funtzioak? Eta osagarriak? Galdera berak egiten dizkiete Ainhoa Zabala eta Imanol Olano Tolomendiko kideek euren buruei. Izan ere, eskualdean herriko ostatuak bizi dituzten egoerak kontutan hartuta, tokiko ekonomian eragiteko beharrezko eragileak direla esan daiteke.

Jan Tolosaldea egitasmoaren barruan eta, batez ere, bertako produktuaren sustapenaren barruan, ostatuak «funtzio oso garrantzitsua» betetzen dutela diote Zabalak eta Olanok: «Jabetza pribatukoak edota erakunde publiko baten kudeatutakoak izanda ere, giltzarri moduko bat dira.

Berataratzen den kontsumitzaile batek bertako produktu bat eskuratzeko aukera duenero, ostatuari balio gehigarri bat erantzen ari gara. Gainera, udalek egin dezaketen apustu horretan, edo euren eragite eremuaren barruan ere, beste elementu bat dira».

Publikoak diren kasuetan, udalek zuzen-zuzenean eragin dezakete ostatuaren kudeaketan. Ostatuak, gainera, herrian ere, funtzio sozial bat dutela nabarmendu dute: «Ostalaritzako negozio bat bada ere, herritarren elkargune publiko bakarra dira. Ingurune eta kultura bat dute, eta gastronomiak horri guztiari lagundu behar dio. Sozialki nahiz ekonomikoki bideragarriak izan behar dute. Zenbait herritan, eskola publikoko jangela modura ere funtzionatzen dute. Udalek, beraz, badute eskumena ostatuaren kudeaketan baldintzak jarri, eta ostatuaren biziberritze prozesu horretan asmatzeko eta, horregatik, garrantzitsua da bertako produktuei bultzada bat ematea».

Prestakuntzaren beharra

Tolomendiko kideek, HAZIK eta eskualdeko zenbait herritako udal ordezkariak, lan talde bat osatzen dute. Ikerketa baten ondoren, prestakuntza mailan hutsune nabarmen bat zegoela ondorioztatu zuten, ostatuak kudeatzen dituzten pertsonengan. Hori dela eta, lau saioko ikastaro bat antolatu zuten, erantzun bat emateko asmoz.

Hurrengo urratsa baldintza plegu eredu bat prestatu, eta eskuragarri jartzea izango da, betiere, defendatzen dituzten irizpide eta oinarriei erantzunez: euskarazko zerbitzua, bertako produktuen erabilera, zerbitzu osagarriak eskaintzea... «Gero, udal bakoitzak erabakiko du arautegi hori erabili edo ez, ostatuaren esku utzi beharrean».

Elikadura politiken barruan eta elikadura estrategia horren baitan, ostatuak adibide garbia dira: «Tokiko ekonomia garapenari dagokionez, ostatuari funtzio nagusiak nahiz osagarriak eskaintzea aitortu behar zaie, horrek aktibazio sozio-ekonomikorako eragin zuzena duelako. Beharbada, gaur egun arte ez zaio garrantziarik eman, bestelako kezka batzuk ere bazirelako; zabalik mantentzea, alegia».

Lehen, ikuspegi ekonomikotik begiratuta, ostatuak ez ziren negozio erakargarriak, hainbat arrazoiengatik. «Salbuespenak salbuespen, kudeatzaileen profilak ere ez dira oso profesionalak». Kasu askotan, gainera, kontzesio berean doaz ostatuak eta etxebizitza; sarritan, alokairu txikiakoa.

«Kudeatzaileak, hortaz, irakurketa garbi bat egiten du: etxe merkea dugu eta, ostatuak aurrera eramanez gero, edo funtzionatu gabe ere, ez dugu inongo arazorik izango». Sukaldaritza ezagutza izanagatik ere, askok negozio edo kudeaketa ezagutzaren falta dutela azpimarratu dute: «Azkenean, udalaren nahia irekita egotea da, hutsunez betetako beste alderdi hori jasatearen truke. Ondorioz, orain, Oresa buru duen aldea-

ta bat berrasmutzen hasiak gara, eta eskualdean badira oso ondo funtzionatzen duten ostatuak».

Olano jakitun da, Oresa edo Adunan ostatuak izatea oso ezberdina dela. «Industrialde bat gertu izateak, kilometro distantziak, eta bestelako arazoiek ere eragiten dute, bata-



Tolomendi landa garapen elkarrekin bertako produktuekin lan egiteko eskaera egin diete, eskualdeko ostatuiei. **TOLOMENDI**

ren edo bestearen erabileran. Landa guneeetan, adibidez, fakturazioaren %80 asteburuetan egiten dute».

Ondo saltzearen garrantzia

Eta, bertako herritarrek kudeatutako tokiko ostatu batek, zer gehiago beharko luke, bertakoa izateko? Bada, ezinbesteko elementutzat jotzen dute, bertako produktuen erabilera. «Leku publikoa den neurrian, ez digu balio ekialdeko jana prestatuko duen ostatu batek, ezta goi-mailako sukaldaritza izango duen batek ere», dio Olanok. «Bertako produktuen kontsumoa beti bultzatzen den ideia da. Hala ere, ez da horrela gertatzen».

Ostatuetan, bertako produktuei ematen dioten balio hori agerian jartzea falta dela uste dute. «Horrek, baina, berme bat behar duenez, prozedura bat eskatzen du. Ez du balio erabiltzen dela esateak, erabiltzen diren produktuen arabera, ezberdina delako». Hala ere, batzuetan, ekoizleek ekoizten dutena eta ostalarien beharrak bat ez datozela ere aipatu dute. «Harreman komertzial bat dute, eta adostuta dute produktuak nola aurkeztu behar diren, baina, gero, ez dakite produktuak ostalariei nola eskaini, eta hor ere hutsune handi bat dago, eta eragitea egokitzen zaigu. Horretan dihardugu», dio Zabalak.

Orain arte, ostatu askok errentagarritasun ekonomikoa bilatu izan dute, ostalaritza negozio gisa, eta hor prezioek markatzen dute hornitzaileen aukeraketa. «Bakoitzak bere hornitzaileak eta bere irizpideak ditu. Bakarren batzuk kenduta, gutxi egiten dute bertako produktuen erabileraren aldeko apustua. Tradizioz, urte luzez aritutakoek egin

izan dute, eta jarraitzen dute. Sentsibilizazioan dago hutsunea». Erosketak egiterakoan lehenesten duguna zer den, eta jasotzea gustatuko litzaigukeen hori zer den identifikatzea beharrezkoa da Zabalaarentzat: «Kontsumitzaileok geure buruarekin egin beharreko ariketak dira. Elikadura, azken finean, bizitza bera bezala, erdigunean ezarri beharreko elementua da; beraz, hautu guztietan eragiten digu».

Ekoizle sarea ezagutaraztea

Gertutasun bat badago, baina ezezagutza handia da. «Askok ez dakite zeintzuk diren hemen inguruan ekoizten diren produktuak. Jatorria bermatzen duten sor-marka desberdinak daude, baina, horietatik aparte ere, ekoizle ugari ari dira lanean. Eskualdean 100 ekoizle baino gehiago daude, zuzeneko salmentan aritzen direnak, eta ostalaritzako komertzio txikietan merkaturatze bidea egina dutenak. Beste batzuek, baina, landu gabe dituzte harremanak. Hortaz, eskualdeko ekoizle sare zabala ezagutaraztea da gure erronka nagusienetako bat». Horretarako, ekintza batzuk diseinatzen ari dira Tolomendin, ekoizleen ustiapenak ezaugaritzeko, gertutasun hori gerta dadin.

«Askotan, herrian bertan ekoizten dena ezagutzen da, edo hori ere ez. Hala ere, eskualdeko gainerako lekuetan ekoizten dena ezagutzea asko kostatzen da». Jan Tolosaldea egitasmoaren barruan, esfortzu bat egin nahi dute, komertzio txikietan produktu horiek duten identifikazioaren inguruan. «Bistaratzea beharrezkoa dela iruditzen zaigu. Askok egiten da, baina ezagutaraztea falta da, eta hori gertatzeko lanean jarraituko dugu».



%80

114

FAKTURAZIOA ASTEBURUAN

Asteburuetako menuak astegunetakoak baino garestiagoak izan ohi dira ostatuetan. Prezioak, ordea, ez du eraginik fakturazioan. Izan ere, landa gunetako jatetxeei dagokienez, aste osoko fakturazioaren %80 asteburuan lortzen dute. Hori dela eta, gainerako eremuetako ostatuak indarberritu nahi dituzte, kopuruak zabaltze aldera.

ESKUALDEKO EKOIZLEAK

Eskualdean, 100 enpresatik gora aritzen dira ekoizle modura lanean. Guztiek eskualdeko nahiz eskualdetik kanpoko herritarrek asetzen dituzte. Guztira 114 dira, eta horietatik ia %70 esnekiak (39) eta barazki eta fruituak (40) ekoizten aritzen dira. Bestetik, badira, haragia (18), edariak (11), arrautzak (5) eta ogia eta gozoak (1) ekoizten dituztenak ere.

Ostatuak biziberritu nahian, lau saioko prestakuntza

Bertakotasuna transmititzea, bertako produktuekin lan egitea, hizkuntza nagusia euskara izatea... Askok dira ostatuak bete beharreko funtzioak. Horiek nola bete, ordea, ez da erraza izaten askorentzat. Hori irakasteko asmoz, 4 saioz osatutako prestakuntza antolatzen duen Tolomendik, hainbat herritan. «Elkarlana bultzatzea ere beharrezkoa da, eta ostatuetako jabe eta langileek elkar ezagutzeko balio du».

Apirilean izan zen lehena, Orexako Ostatura herri proiektu gisa bataiatu zutenean. Bigarrena, aurreko astean egin zuten, Ikaztegieta, ostatuaren kudeaketan oinarritzeko ezagutzak zeintzuk diren azaltzeko. «Ez da soilik kozinatzen jakitea, negozio bat delako». Bertaratutakoak euren esperientzietatik abiatu ziren eta, zentzu horretan, «motz» geratu zirenaren sentsazioa izan zutela azaldu du Olanok.

Hirugarren saioa ekainaren 4an izango da, Altxoko elkartearen bertako produktuen erabilerarako eta salmentarako araubideen inguruko ezagutza zabaltzeko legeen berri emango dute, hitzaldi baten bitartez. Ekoizleak ezagutarazteko tartea ere egongo da, eta kudeatzaileak sentsibilizatzeko balioko du. «Ostatu publikoen kasuan, udalak erabakitzen du zer motatako produktuak erabili eta, beraz, pleguen inguruko informazioa ere helaraziko diete bertaratutakoei». Amaitzeko, eskualdeko produktu nagusiekin hiruz-

palau plater berezi nola egin erakutsiko dute, Roberto Ruiz eta Sandra Tapia sukaldariek.

Udazkenean izango da azkena, 2-3 ordukoa. Bisitari harrera nola egin behar zaien, edo herriko informazioa nola eman behar zaien azalduko dute. «Jende asko dago, herri txiki batean bizitzeko interesa duena eta, beharbada, bertan lan egiteko aukera interesgarria zaie. Ostalaritzaz harago, kulturaz eta harremanez ari garelako». Hala ere, ostatuak berritu beharra ere ikusten dute: «Asko duela 40 urteko ereduak dira, eta ez dira garai berrietara egokitu. Lehen toki ilunak ziren; orain argiagoak eta irekiagoak dira».

Bestetik, ostatuak herritarren zerbitzura daudenean, zentzua dutela diote. «Eskaintza gastronomiko mundiala izan dezakete, baina, herritarrei zerbitzu bat eskaintzen ez badiete, ez dute ezertarako balio. Herritarrek, ordea, ostatuarekiko konpromiso kolektibo bat ere izan behar dute. Elkarlan horretarako formulak aurkitu nahian gabilta, garrantzitsua baita».

Garrantzitsua da ostatuei ere balioa eta prestigioa ematea. «Negozio aukera polit bat izan daiteke, zenbait ezaugarri betez gero. Oso ohikoa da herrian ostatu bat falta dela esan eta, gero, irekitzen denean, herritarrek ere ez joatea».

Ikastaroetan independenteki har daiteke parte eta, interesa dutenek, www.tolomendi.eus webgunean edo 943 65 50 97 telefono zenbakira deituz eman dezatela izena. «Prestakuntza interesgarria eta bakarra da, herri ostatuei dagokienez, behintzat».



Jogurtak, izozkiak, edo gazta ekoizten dute, Orendaingo Larreta baserrian, gero, eskualdean eta herrialdean saltzeko. I. TERRADILLOS

Etxeko esnekiak, bertakoentzat

18

Esnea bizibide duen baserria da Larreta. Bertan, egunero aritzen dira mota guztietako esnekiak ekoizten, nonahi saltzeko.

J. Artutxa

2014ko apirila zen, Larreta baserriko Leire Lizeaga eta Andoni Egia, furgoneta hartuta, «abentura berrien bila» hasi zirenean. «Etxean egiten genituen jogurtak saltzeko asmoa genuen». Orain, bost urte igarota, biek daramate negozioa, eta beste lauzapabot langile dituzte, banaketa lanean, ukuiluan eta produktuak ontziratzen.

Eskualdean ez ezik, kanpora ere banatzen dituzte ekoiztutako produktuak. Hala ere, Lizeagak dion moduan, «ekoizpen txiki bat gara». Denda edo saltoki txikietan eta jatetxeetan saltzen dituzte, mota guztietako esnekiak. Pixkana, ordea, lurraldetasunari begira, euren salmenta eremua zabaltzen ari dira. «Orain arte, Gipuzkoako hainbat txokotaraino heltzen ginen eta, orain, Aramaiora (Araba) ere joaten gara produktuak saltzera. Helburua, ordea, ez da ekoizpen handi bat izatea, baizik eta duguna mantentzea, eta, aurrera begira, dibersifikatzea edo produktu berriren bat merkaturatzea».

Egunerokoan arruntak diren esnekiak ekoizten dituzte gehienbat: jogurtak, gaztak eta izozkiak. «Gehien jogurtak kontsumitzen dituzte gure bezeroek eta, beraz, horien ekoizpena da handiena. Udan, berriz, izozkiak gehiago saltzen dira, nahiz eta urtean zehar jatetxeetan eskatzen dituzten». Ekoizpen berriei buruz galdetuta, buruan ideia ugari dituztela diote, eta proba ezberdinak egiteko asmoa ere bai.

«Azken erronka, baina, iaz lortu genuen produktu ekologikoaren zigiluarena izan da, eta horri garrantzia eman nahi diogu orain, esne ekologikoa ekoizten dugulako».

Eskualdean, «harreman oso ona» dute herriko ostaluetekin; Lizartzan, Orendainen eta Abaltzisketan saltzen dituzte produktuak. Azken horretan, gainera, eskolako jangela modura funtzionatzen duenez, haurrentzako jogurtak eramanen dituzte. «Bertako produktua etxean saltzea oso garrantzitsua da. Gero eta gehiago ikusten da, baina ez da erraza. Lan handia egin beharra dago, kalitateari baino gehiago, askok prezioari begiratzen diotelako». Kontzientzia falta nabari du Lizeagak: «Kontsumo arduratsuen teoria praktikara eraman beharko genuke, egunerokotasunean, gauza oso txikiekien, aldaketa bat eragin daitekeelako».

Larretak orain arte egin duen bidea, ordea, ez litzateke posible izango, euren bezeroengatik ez balitz. «Eskerrak eman beharrean gara. Lanean ari zarenean, jendeak erantzuten duela, produktua baloratzen duela eta harreman eta gertutasun horri garrantzia ematen diola ikusteak, poz handia ematen du. Bezeroak baino gehiago, lagunak direlako». Bertako produktuaren aldeko apustu sendoa egiten duten denda jakin batzuk ere badaudela dio, eta horietan erosten duten bezeroak, kontzientzia jakin bat dutenak direla.

Gertuko produktuei aukera berriak eta bultzada bat ematea da, Lizeagaren ustez, jarraitu beharreko bidea. «Eskatzen eta erosten jarraituz gero, bezeroek gustura eskatzen dutenaren seinale izango da». Horrelako erosleak izatea, guretzako ere pizgarri modukoa da. «Gure produktu bat erostea ez da esneki soil bat erostea, proiektu txiki bati ekarpen handi bat egitea, baizik».

«OSO GARRANTZITSUA DA JAKI TRADIZIONALAREKIN LAN EGITEA ETA, NOSKI, BERTAKOA IZATEA»

PAULO GARAIALDE

ORENDAINGO OSTATUKO JABEA ETA ZERBITZARIA

25 urte daramatza Orendaingo nahiz eskualdeko herritarrei ostalaritza zerbitzua eskaintzen. Gogo berarekin jarraitzeko asmoa du, betiere, tokiko elikagaiak erabiliz, eta bezeroekin ahalik eta harreman onena mantenduz.



Txindokiren magalean dagoen paisaia idilikoko txoko ezkutu bat bezalakoa da Orendain. Bertako udalletxearen azpian, herriko ostatua dago, 1994az geroztik Paulo Garaialde eta Enkarni Garmendiak kudeatzen dutena. Azken urteetan zerbitzua areagotu dute, ohiko bezeroez gain, bisitari berriak erakarri nahian. Udaleko langileen edo etxeko obrak egiten ari diren herritarren deskantsurako gunea izaten da. Kafea hartzeko ohiko lekua. 11:00etatik aurrera, egun osoan egoten da irekita, eta asteazkenetan ixten dute, asteko jai eguna baita. «Egunero aldatzen dugu menua, bezeroak egunero bertaratzen direlako, eta eskertzen dutelako», dio alegiarrak.

Fakturazioari dagokionez, zein alde dago astegunetarik asteburuetara?

Asteburuetan, kanpotik jende gehiago etortzen da, eta ekonomikoki ere nabaritzen da hori.

Zein motatako bezeroak bertaratzen dira?

Denetik, bai orendaindarrak, baita herritik kanpokoak ere. Asteburuetan, kanpotik taldean edo familian etortzen dira asko, 20-25 laguneko multzotan eta, batez ere, kanpotik.

Zein garrantzi ematen diozue bertako produktuari, Orendaingo ostatuan?

Handia. Horri esker funtzionatzen du ostatuak. Oso garrantzitsua da jaki tradizionalarekin lan egitea eta, noski, bertakoa izatea.

Bezeroek eskertzen dute bertako produktuekin lan egitea?

Bai. Erraz antzematen dute. Gehienbat, letxugarekin, arku-mearekin edota oilaskoarekin gertatzen da. Menua irakurtzen dutenean, askok ez dute galdetzen, baina, gero, jaterako orduan ohartzen dira, eta nongoa den galdetzen dute. Nik, adibidez, askotan esaten diet gure esnekiak Orendaingo Larreta baserrian ekoiztitakoak direla, eta hori ere eskertzen dute.

Bertako produktuak eskaintzen dituzten eskualdeko ekoizleekin egiten duzue lan?

Bai. Lehen aipatu bezala, esnekiak Larreta baserritik ekartzen ditugu, eta baita Zelaieta baserritik ere. Gainera, arrautzak Orendaingo Sasigain baserrikoei erosten dizkiegu.

Funtzioei dagokionez, taberna eta jatetxeaz gain, bestelako zerbitzurik eskaintzen duzue?

Ostatu bat, taberna eta jatetxea elkarrekin baino gehiago da. Herriko zenbait gunetako giltzak hemen gordetzen ditugu, esaterako, kanposantukoa, eta, herritar askok internetez zerbit ait erosten dutenean, bertan jasotzen dute eskatutakoa. Bestetik, kanpotik etortzen direnek, baserrien kokalekuaz ere galdetzen digute. Beraz, askotan udaletxea bezala funtzionatzen dugu, zerbit ait osatuagoa baita.

Lehentasunei begira, zabalik mantentzea garrantzitsuagoa al da, barne kudeaketa egoki bat izatea baino?

Zabalik mantentzea ezinbestekoa da. Hala ere, seriotasun eta jarraipen bat eman behar zaio. Bezeroentzat oso garrantzitsua da ostatua irekita egongo denaren kontzientzia izatea. Mantentzeari dagokionez, lan handia eskatzen du. Horrez gain, oso garrantzitsua da bezeroekin kontaktu ona izatea, harreman hori galtzea ekiditeko.

Tolomendik prestakuntza saio batzuk antolatu ditu, ostatuen kudeaketa egokia izan dadin. Bazenekien zerbait? Zer iruditzen zaizu?

Ez nuen horren inguruko informaziorik. Hala ere, nire iritziz, ostalaritzako lanak gustuko zerbit ait izan behar du, negozioa aurrera eraman nahi duen edonorentzat. Gogoz hartu behar da, bestela, oso zaila da horrenbeste orduz lanean aritzea. Batzuetan, goizaldeko ordu biak arte irekita egoten da ostatua. Zergatik? Herritarrek badakitelako, etorri eta lasai egon dezaketela bertan. Eta, ni zergatik egoten naiz berandu arte ostatuan? Jakitun naizelako, jende hori etorri egingo dela.



JAKINDURIAK, BERTSOA LAGUN

Zientzia eta bertsolaritza uztartzen dituen 'Jakinduriek mundue erreko dau' egitasmoak geldialdia egingo du Tolosan, Topic aretoan, maiatzaren 22an.

Onintze Salazar, Juan Igancio Perez Iglesias, Gorka Azkune eta Josu Lopez-Gazpio zientzialariak ariko dira solasean, eta Nerea Ibarzabal eta Amets Arzallus bertsotan. Kike Amonarrizek gidatuko du saioa.



IÑIGO SIERRA/EHUKO KULTURA ZIENTIFIKOKO KATEDRA

Imanol García Landa

Eta zergatik ez zientzia, dibulgazioa eta bertsolaritza uztartu? Zientziaren dibulgetzaile moduan aritzen den Xabier Artaetxebarria ingeniariari ideia horixe bera etorri zitzaion burura, Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalean zegoela, bertara joan zen jendetza ikusita. Zientziara jendea erakartzeko bertsuak erabiltzea pentsatu, eta harremanetan jarri zen Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedrarekin; proposamena aurkeztu, eta hortik abiatu zen *Jakinduriek mundua erreko dau* egitasmoa. Bere bidea egiten ari da azken urteetan, eta maiatzaren 22an Tolosako Topic aretoan egingo dute saio bat, 19:00etan hasita. Ohi bezala, doan izango da.

Uxune Martinez Kultura Zientifikoko Katedraren ordezkariak eta egitasmoaren koordinatzaileak azaldu duenez, izenak badu bere esanahia: «Atsotitz bat da, Goizon Garate hizkuntzalariak jaso, duela urte askotakoa.

**«Denok ezagutzen dugu zer den tirit bat, baina ez da hain jakina, tirit baten atzean zer dagoen. Bada, kimika dago, eta polimeroz osatuta dago»
UXUNE MARTINEZ**

'Jakinduriek mundua erreko dau' esanak jasotzen zuen, duela bi mende inguru edo, zer-nolako mesfidantza zegoen, jakintsuekiko eta haiek esaten zituztenekiko. Herriak adierazten zuen, esan horrekin, zientziarekiko mesfidantza; zerbait iluna edo txarra zegoela hor».

Gaur egun ez dago mesfidantza hori gizartean, baina «zientziak badu itzal edo gerizpe bat iluna dena, Martinezek azaldu duenez; badauka zaila denaren etiketa hori, hau da, bakarrik adituek edo laborategietan daudenek jakin dezaketela, edo ezagutzen dutela. Gure mundutik kanpo dagoen zerbait izango balitz bezala». Eta horri buelta ematea da, zientzia dibulgetzaileen eta egitasmoaren helburuetako bat: «Zientzia egunero dugu ondoan. Irrati seinalea uhinen bidez doa, eta hor zientzia dago atzean. Hor ditugu ordenagailuak eta sakelako telefonoa, gure hirugarren eskua dena, eta horren ostean matematika, ingeniartza eta adimen artifiziala dau-de. Zientzia bertan daukagu, egunerokotasunean».

Gaur egun bertsolaritzak duen erakargarritasuna baliatzen dute, jendea saioetara joateko. «Bertsolaritzak badu dohain bat: bildu egiten garena bere ondoan. Erakarki egiten du jendea, eta gure kulturaren zati edo ondare gisa hartzen dugu», esan du Martinezek. «Asmoa da, saio hauekin hori bera proposatzea zientziarekin. Hau da, bertsolaritza ondare kulturala den moduan, zientzia ere ondare kulturala dela, eta biak nolabait uztar daitezkeela». Zientziak bere horretan pizten du interesa, eta horrela jaso ohi dute, soziologoek egiten dituzten ikerketetan. Baina, gero, hori zenbait jardueratarako edo hitzalditarako joaterako orduan, ez dela egiaztatzen dio Martinezek. *Jakinduriek mundua erreko dau* proiektuarekin, egoera horri beste aurpegi bat jartzea da asmoa.

Askotariko gaiak jorratzen dituzte saioetan. «Aurreko batean, oso polita izan zen tiritei buruzkoa», esan du Martinezek: «Denok ezagutzen dugu zer den tirit bat, baina, ez da hain jakina, tirit baten atzean zer dagoen. Bada, kimika dago, eta polimeroz osatuta dago». Beste gai bat ere aipatu du, adibide moduan: «Bilboko kirol proba batean gertatutakoa izan zen. Ibaian igeri egin behar zuten, eta batzuk mikroorganismo batekin kutsatu

egin ziren, eta gaixotu egin ziren. Bada, mikrobiologo bat eraman genuen Bilboko saio batera, azaltzeko, zer zen mikroorganismo hori, eta zergatik gaixotu zituen kirolari horiek».

Saio entretenigarriak

Kike Amonarriz aurkezle eta komunikatzaile tolosarrak gidatu ohi ditu saioak, eta Tolosakoan ere lan horretan ariko da. Kultura Zientifi-

koko Katedratik jarri ziren berarekin harremanetan, eta hasieratik proiektua oso polita eta erakargarria iruditut zitzaien. «Bilbon egin genuen, orain dela lau urte, lehenengo, EHUn areto batean. Eta, egia esan, aurkikuntza bat izan zen. Hasieratik ikusi genuen formatu inte-

resgarria zela. Bakarritzeta zientifikoak, horiek bertsoekin erantzun, tartean aurkezpenetan umorea sartu, eta gero, gainera, publikoarekin zientziaren inguruko jolas bat egitea. Hura oso ondo atera zen, bertaratu zen jende guztia ikaragarri gustura atera zen». Hurrengo urtean ere Bilbon egin zuten, eta iaz hasi ziren Bizkaiko beste herri batzuetan egiten. Gipuzkoan eta Iruñean ere egin dute, eta formatua zabaltzen ari da.

Tolosako saioan lau zientzialari izango dira. «Onintze Salazarrek eguraldiaren inguruko gai bitxi bat ekartzen digu, bideo ikusgarri batzuekin, Jendeak ezustekoak hartzen ditu», esan du Amonarrirek. «Juan Ignacio Perez Iglesiasek naturarekin lotutako gaiak ekarri ohi ditu, eta Gorka Azkunek teknologiaren ingurukoak. Josu Lopez-Gazpio tolosarrak azaltzen dituen gaiekin, jendea aho zabalik geratzen da». Bertsolariak Nerea Ibarzabal eta Amets Arzallus izango dira.

Formatua hasieratik oso ondo ezkondu zela dio Amonarrirek: «Bakarritzketetan aritu diren zientzialari guztiak saiatzen dira, joango diren jende guztia erantzutarako interesgarriak eta deigarriak izango diren gaiak sartzen, eta askok umore puntu bat eransten diote. Gero, bertsolariak ere oso adi egoten dira, eta zientzialariak aipatu dituzten gaiak helduleku bezala hartzen dituzte, bertsoan aritzeko. Jendearengan oso efektu polita sortzen du horrek». Amonarrirek gogora ekarri du, egitasmoaren bultzatzaileetako bat den Perez Iglesiasek dioena: «Saio hauen helburu nagusia jendea dibertitzea da. Gero, dibertitzeaz gain, datu deigarri batzuk jaso eta bertso on batzuk entzuten dituzu».

Zientzialarien bakarritzetak hamar minutukoak izat-

en dira, eta bakoitzak bere euskarriak erabiltzen ditu azalpenak emateko. Bakarritzeta bakoitzaren ondoren, bertsolariak aritzen dira, banaka edo binaka. «Aipa dezakete entzuten dutena ala ez, hori bertsolariek hartzen duten bidearen arabera izaten da», esan du Amonarrirek. Saioaren une batean jolas bat egiten dute publikoarekin, eta sariak banatzen dituzte. Saiora joaten direnei bi txartel ematen dizkiete, berdea eta gorria, eta, bata ala bestea altxatuz, asmatu egin behar dute zein den egiten zaizkien galderen erantzun zuzena. Saiora egingo den herriari lotutako galdera batzuk prestatzen dituzte; horrela, datorren asteazkenean, Tolosa eta zientzia lotzen dituzten kontuei buruzko galderak egingo dituzte. «Beraz, pentsa, sarrerarik ordaindu ez, ondo pasatu eta, gainera sari batekin joan zaitezke etxera», esan du Amonarrirek.

Josu Lopez-Gazpioarentzat ez da lehenengo saioa izango Tolosakoa: «Lehenbizi Ondarroan egon nintzen, eta jende asko etorri zen. Oso gustura egon nintzen, eta oso ondo joan zen. Gero errepikatu egin dut, beste bost bat aldiz eta herri ezberdinetan, eta oso gustura aritu naiz». Lopez-Gazpio irakaslea da Mungiako Ikastolan, kimikaria, eta zientzia dibulgatzailea. TOLOSALDEKO ATARIAREN kolaboratzailea izateaz gain, Zientzia Kaiera blogean parte hartzen du eta Euskadi Irratiko *Ekosfera* saioan ere bai.

Komunean ura botatzen denean, tapak irekita edo itxita egon behar duen izango du hizpide. «Hamar minutuan ezin da erakutsi asko, baina kontzeptu batzuk eta kuriositate batzuk eman daitezke», esan du Lopez-Gazpio. «Gehiegi sakondu gabe, baina zuzentasuna



Saiora joaten den publikoak jolasteko eta sariak irabazteko aukera izaten du. IÑIGO SIERRA/EHU KO KULTURA ZIENTIFIKO KATEDRA



Josu Lopez-Gazpio eta Kike Amonarriz, aurreko saio batean. IÑIGO SIERRA/EHUKO KULTURA ZIENTIFIKOKO KATEDRA

galdu gabe aritzen gara. Zientzia ikasi izan dugun moduagatik, askotan pentsatzen da zerbait astuna dela, zaila ulertzeko, baina konta daiteke modu erraz eta entretengarri batean. Jakin-mina piztu ahal zaio entzuten ari denari, edo aurretik planteatu ez duen galdera bat sortu». Zientzialariak diskurtsoa moldatu egin behar duela dio Lopez-Gazpiok, hitz teknikoak aurretik azalduz, edo metafora batzuk erabiliz. «Dena azal diezaiokegu, edozeini», dio Lopez-Gazpiok.

Lehenengo saioa antolatzerakoan, ez zuten pentsatu bertsolariek zientziarekin zerikusia zuten edo ez begiratzeari. Martinezek dioenez, «ikusi genuen zein ziren saioetan gai zailak zailak bilatzen zituztenak, gaia eta bertsoa josteko. Gerora, denetarik izan dugu. Badaude ingeniariak diren bertsolariak edo, Jone Uria, matematikaria dena; kazetariak direnak ere badira, edo zuzenbidean lizentziatuak... Ez dugu begiratu, propio, zientziarekin harreman zuzena ote duten. Profil ezberdinak hautatu ditugu, ikusteko, zer-nolako emaitzak ematen dituzten eta, egia esan, denak izan dira oso onak». Lopez-Gazpiok dioenez, «bertsolarientzat ere, pentsatzen dut ez dela erraza. Batzuetan gai teknikoagoak dira, adibidez, termodinamikari buruz izan daitekeelako gai bat. Baina moldatzen dira nonbaitetik eusteko, eta ateratzen dituzte bertsoak, eta jendea gustura aritzen da. Bertsolariek ere, zalantza bat badute, hori botatzen dute, edo zer ikasi duten ere azaltzen dute, bertsotan».

**«Zientzia ikasi izan dugun moduagatik, askotan pentsatzen da zerbait astuna dela, zaila ulertzeko, baina konta daiteke modu errazean»
JOSU LOPEZ-GAZPIO**

Zientzialari tolosarrak ez ditu «gai teknikoegiak» hartzen. «Erraz uler daitezke, gehiago da umoretik jorratzea». Kaka eta pixaren gaia hartzen du askotan, eta gero elikaduraz edo beste gai batzuez hitz egiteko aukera ematen dio. Bestalde, jendea gustura geratzen dela esan du: «Saioa bukatzerakoan, tarte batez geratzen gara eta, egia esan, nik jaso dudana beti izaten da jendea gustura geratzen dela. Entzuten ari direnean ere, asko adi, berriz ere ikusten dira eta, alde horretatik, niri asko gustatzen zait. Eta, norabait joatea proposatzen didatenean, oso gustura joaten naiz saio hauetara. Orain, Tolosan egingo dugulako ere oso gustura nago». Gainera, Lopez-Gazpiok horrelako egitasmoak ahal den leku guztietara eramatea proposatu du: «Publiko orokorra ez da joango Tolosatik Bilboraino, baina, adibidez, Topic-en saioa duenean, errazago anima daiteke».

Saioak gidatuz, Amonarriz bera ere ikasten ari da zientziaren inguruan eta, bertsolariei gaiak jartzea egokitzen zaionez, zenbait teknika ere ikasten ari dela dio; eta baita «esperimentatzen» ari dela ere. «Aurkezpen mota ezberdin bat da. Normalean mantala txuriarekin jantzita joaten naiz, zientzialariz mozturrotuta, eta horrek aurkezpenari pertsonaia puntu bat eranstean dio, eta aukera ematen dizu bestela esango ez zenituzkeen gauza batzuk esateko edo egiteko». Gonbidapen zehatza egin du aurkezleak: «Norbaitek zalantzaren bat badu, joan dadila saiora. Ez zaio damutuko».



Bizidun bikotea

Aspaldiko partez, irakurleei begirada aldatuko dien zutabetxo bat idatziko dut, lehen egiten nuenaren antzera. Bizidun bat aurkeztuko dizuet, denok ezagutuko duzuen; ostean, berari buruz datu interesgarri batzuk emango ditut eta, hurrena, bizidun hori ikusitakoan, pare bat minutu egongo zarete berari begira. Bizidun hau, ziurrenik, zuhaitzen iparraldera begira dagoen azalean ikusi duzue. Batzuetan laranja da, besteetan zuria, baina, normalean, bere albotik pasatu eta kasu gutxi egiten diogu. Bizidun hau likena da, eta ezaugarri interesgarri mordo du, guri erakutseko.

Likena alga eta onddo baten arteko sinbiosi edo elkarbizitza da. Onddoak likenaren gorputza sortzen du, bere luzakinekin, eta alga luzakin horien artean ezkutatzen da. Noski, onddo hauek ez dira perretxikoak ematen dituzten onddoak bezalakoak: alga horiek mikroskopiko eta biribilak dira, eta ez, marea behean denean, hanketan itsasten zaizkigun alga nazkagarri horiek bezalakoak.

Baina, zergatik elkartu ote dira bi bizidun mota horiek, beste bizidun berri bat sortzeko? Biek onurak lortzen dituztelako! Algak landareak dira eta, landareen gehiengoaren moduan, eguzki energia lortzeko gai dira. Onddoak ez dira landareak, ezta animaliak ere, onddoak... onddoak dira! Eta ez dira gai eguzki energia jasotzeko; onddoak inguruko materia organiko hila kontsumitzetik bizi dira normalean. Baina, likena osatzen duten onddoek bere barrenean alga eguzkijaleak sartzen dituzte, eta, zer hobetik doako eguzki energia baino? Onddoak bere gorputzaren barrenean algak gorde besterik ez ditu egiten, eta eguzkia dagoen lekuan hazi; algak, birtartean, etxetxo polit eta babestua du, eta eguzkia energia partekatu besterik ez du egin behar.

Liken bat izatea hain izan da onuragarria bi bizidunentzat, ezen munduan zehar milioika liken mota baitaude. Ba-



tzuk zuhaitz azaletan hazten dira, baina badira arroka barruan hazten direnak ere. Zenbait liken zoruari itsatsita hazten dira, baina beste batzuek hosto forma hartzen dute, eta benetako egitura konplexu eta politak osatzen dituzte. Gainera, mundu osoan barreiatu dira, basamortu berotik hasi, eta poloetaraino.

Bi izaki bizidunen arteko lotura oso estua da, ugalduek ere batera egiten dira. Sarri, onddoak kopa itxurako egiturak osatzen ditu bere gainazalean; bertan, kopa horien barruan, alga batzuk sartzen dira. Gero, haize bolada batek kopa horiek hegaldatu egiten ditu, eta bi lagunak badoaz, eraiki berri duten espaziontzi naturalean, atsegin duten inguru berri bat kolonizatzen.

Imagina ezazue momentu batean, Tolosaldeko biologo zoro batek, likenekin erabat maiteminduta, bere baserriko laborategian alga mikroskopikoak barrenean dituen ardi bat sortzen duela; liken bat bezala, baina, onddoaren

partez, ardi bat! Ardi horren artilea guztiz berdea izango litzateke, klorofilaz gainezka, eta eguzki energia lortzeko gai izango liratekeen alga ñimiñoz josia egongo litzateke. Ardi horrek ez luke belardirik beharko elikatzeke, soilik eguerdiko orduetan, ordu batzuek, eguzkitara ateratzea, eta kitto. Algek, ardiak bizitzeko beharko lukeen energia guztia lortuko liokete eta, ardi zorteduna, eguna edonora begira pasatu besterik ez luke egin behar, *beeee!* pare bat eginez.

Iritsiko da eguna, biologo zoro batzuek mundua gobernatuko dutena, eta naturan ikusitako ideiak gizakiaren egunerokoan erabiliko dituztena. Belarrik jaten ez duten ardi algadunetz gain, urpean arnasa hartu ahal duten behiak, sei hanka eta lau hego pare dituzten oirlasko errentagarriak eta, nola ez, lau gibel dituzten antzarak.

Mundua gobernatu beharko luketen gizasemeak biologo zoroak baino zentzudunagoak izan beharko luketela pentsatzen baduzu, arrazoi duzu. Orain, begiratu gure mundua nork gobernatzen duen; zer nahigo duzu?



JON ANDER GALARRAGA
BIOLOGOA



Hezkuntza taupadei idatzitako kantua, datorren ekainaren 2ko festarako

25

Aurkeztu dituzte, jada, Euskal Eskola Publikoaren 28. festaren abesti eta bideoklipa, eta hilabete amaieran iragarriko dute, ekainaren 2ko festaren egitarau zehatza.

Apirilaren 30ean aurkeztu zen Euskal Eskola Publikoaren 28. festaren abestia eta bideoklipa. *Makina bat taupada* jarri diote izena, abestiari. Oneka Oliverik idatzi du letra, Yon Figuerok konposatu du musika, Arkaitz Miner musikariak koordinatu du musikaren arloa, eta hainbat musikari eta abeslarik parte hartu dute abestian.

Bideoklipa, berriz, Gotzon Santaolayak zuzendu du. Errenteria-Oreteran grabatu dute eta, herriko kaleez gain, Papresa-ko teilatuan grabatu dituzte zati batzuk. Oiarzun ibaiari ez diote bizkarrik eman, eta bertatik etorri da Lekeition iaz egin zen festaren lekukoa. Aktore lanetan, berriz, Oarsoaldeko eskola publikoaren komunitateko kide ugari elkartu dira.

Euskal Eskola Publikoaren festa ekainaren 2an ospatuko da, eta egitaraua maiatzaren bukaeran aurkeztuko dute.

Euskal Eskola Publikoak
Errenterian bota du aingura,
denontzat zabalik dago
Euskal Herritik mundura.
Hezkuntza aukera paregabea
etorkizunez dago betea,
zu eta ni engranajea
jar dezagun martxan katea!
Makina bat taupadek
ematen diote bizia,
Euskal Eskola Publikoa
gure geroaren hazia.
Gure herriko kaleetako
argazki baten tankeran,
jatorri eta izaera ugaritako
lagunak gaude ikasgelan.

Euskalduna eta anitza
horrelakoa bait da bizitza,
hezkuntza gizartearen giltza
entzun dezatela gure hitza!
Makina bat taupadek
ematen diote bizia,
Euskal Eskola Publikoa
gure geroaren hazia.
Elkarlanean bagoaz aurrera
denek izan dezagun aukera bera.
Zu ere gurekin batzen al zera?
bultza dezagun denok batera!
Ekainaren bian dugu zita
prestatu eta zatoz, «ti-ta»!
«Errenterian bizi gara eta
egin zaiguzu bisita!»

Agenda

OSTIRALA MAIATZAK 17

ALKIZA

17:00. 12 urtetik beherako haurrentzako ginkana.
18:15. Berdintasunean oinarritutako ipuin kontaketa, Mertxe Aizpurua kontolariaren eskutik, kultur etxean.

AMASA-VILLABONA

19:00. Onddo Gazte Asanbladaren 22. urteurrenean, mahai ingurua, kultur aniztasunaz.

ANOETA

21:00. Bertso afaria gaztetxean: Eli Pagola eta Unai Mendizabal bertsolariak ariko dira.

ASTEASU

22:00. Bertso kantaldia, Santa Krutz ermitan, Pello Errotaren eta Mikaela Elizegiren bertsoaldien aukeraketarekin. Eñaut Agirre abestuko ditu. Sarrera: 8 euro.

BERROBI

19:00. Mendizaletasunari buruzko solasaldia, Begi-urdin gaztegunean: *Non dagon, non?*
21:00. San Isidro eguna ospatzeko afaria Iriarte jatetxean.

BIDANIA-GOITATZ

19:30. LGTBIQfobiaren Aurkako Egunaren harira, film proiektzioa: *Tomboy*.

IBARRA

22:00. Ibarako V. Mus Txapelketa Herrikoiairen hasiera, Xepla elkartearen. Izen-ematea bikoteko: 20 euro.

IRURA

22:15. Mus txapelketaren finalerdiak eta finala joatuko dituzte, Enara tabernan.

TOLOSA

17:15. Mural margotzea topagunean. Adina: 12-17 urte.
18:30. Hitzaldia Larramendi auzo elkartearen: *Haur eta gazteen transexualitatea*. Hitzlaria: Bea Sever sexologoa eta Naizen Elkarteko ama.
20:30. *Paraíso pintado* ikuskizuna, Leidorren, Amaro zko antzerki asteari ekingo dio hitzozduak.

22:30. Kontzertuak Bonberenean: Basati eta Brea. Sarrera: 5 euro.
MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA ETA GAUZURIA (4-5. ORRIALDEAK)
17:00-01:00. Ate irekiak Topic museoan.
17:00-00:00. Emanaldiak, Topic-en, musika eskolako ikasleen eskutik.
21:30. Alde Zaharrean eta Santa Maria parrokian gaueko bisita gidatua, euskaraz.
22:30-00:30. Koktel zuriaren dastatzea, Topic-en, Bide Bideren eskutik.
23:00. Bisita gidatu bereziak, *Eszenak & Istorioak*. *Speeltheater Holland* aldizkako erakusketara (euskaraz).
24:00. Bisita gidatu bereziak, *Eszenak & Istorioak*. *Speeltheater Holland* aldizkako erakusketara (gazteleraz).

ZIZURKIL

17:30. Ikastetxeetako bertsolaritza ikasleen eta Loatzo musika eskolako koroaren eta ikasleen emanaldia, Atxulondon.

LARUNBATA MAIATZAK 18

ALKIZA

10:00. Intsektuen mundua ezagutzeko bisita gidatua, plaza tik abiatuta, Santi Pagola entomologoaren eskutik.
12:00. Museoen Nazioarteko Eguna Ur Mara museoan. Bisita gidatua. 19:00etan, kontzertua Iñaki Zudaireren eskutik, eta ondoren afaria.
18:00. Frontenis Master Txapelketa.

ALTZO

20:30. San Isidro eguna. Meza Altzo Muñoko Santa maria elizan. 21:00. Afaria, Altzoko ostatuan.

AMASA-VILLABONA

10:00. Onddo Gazte Asanbladaren 22. urteurrenean, Onddolar mendira irteera. Ondoren, bazkaria

BERROBI

09:00. Erreka garbitzeko auzolana. Ondoren, hamaketakoa.

IRURA

09:00. Iurako ikastolaren jaia.

ORENDAIN

13:00. San Isidro eguneko ospakizunak.

Meza. 14:00. Baserritarren bazkaria, ostatuan. 17:30. Solasaldia, Desazkundea gizarte mugimenduaren eskutik: *Gutxiago gehiago da*.

TOLOSA

09:00-14:00. Lore eta Landare Azoka Berezia Berdura plazan.
10:00-14:00/15:00-19:00. Ate irekiak Topic museoan.
10:30. San Isidro egunaren harira, baserritarrei omenaldia.
12:00. FOTOIPC lehiaketako sari banaketa Topic zentroan.
11:00. *Haurren hiria* ekitaldia, Alondegia plazan, proiektua herritarrei zabaltzeko. Bizikleta edo patinetarekin ibiltzeko zirkuitu txiki bat eta txapa tailerra izango dira.
11:30. Bisita gidatu antzeztuak familiarentzat, Topic-en. Izena eman behar da (943 65 04 14 edo cit@cittolosa.com).
12:00. 4x4 futbol txapelketa, Larramendi auzoko Arkauteko belazean. Alebin eta benjaminentzako.
12:00. II. Munduko Txapel Jaurtiketa Lehiaketa, Berazubi estadioan.
16:30. Birziklatu azoka Berdura plazan, Ana Yurd elkarteak antolatuta.
16:30. Kirola kalean topaguneak antolatuta. Adina: 12 - 16 urte.
17:00-18:00. Haurrentzako tailerra, doan, Topic zentroan.
18:00. Orkestrina Band Jazpana Alondegia tabernan.
19:00. MUSIKARIA: Tolosako Musika Bandaren emanaldia Zerkausian.
21:30. Alde Zaharrean eta Santa Maria parrokian gaueko bisita gidatua gazteleraz.
22:30. Kontzertuak Bonberenean: Doble Capa eta Buffalo. Sarrera: 8 euro.

ZIZURKIL

11:00. Zizurkilgo XX. biatloia, herrigunean hasita.
17:00. Gipuzkoa Bertsotan Atxulondo kultur etxean. Maider Arregi, Jokin Bergara, Mikel Iturriotz, Joritz Bastarrika, Itxaso Piquer eta Oihana Arana ariko dira kantuan, eta Inaxio Usarralde izango da aurkezlea.

IGANDEA MAIATZAK 19

ALEGIA

Languarre eguna BERTAN BEHERA.

ALKIZA

18:00. Frontenis Master Txapelketa.

AMASA-VILLABONA

12:00. Onddo Gazte Asanbladaren 22. urteurrena. Hitzaldia: preso ohien bizipenak.
19:30. Kontzertua: *The Primitives*, Gurea antzokian. Musika, a capella.

ANOETA

19:00. *Andre eta jabe* poesia emanaldia, Anoetako Gaztetxean.

BALIARRAIN

14:00. San Isidro bazkaria, Zartagin.

BERROBI

10:00. VII. Udaberriko Azoka. Bertako produktuak, artisauak, saskigintza, literatura opari, karikaturak, pintxoak, musika, zozketa... 11:30. VI. Argazki Rallyko sari banaketa. 12:00. Arranoen hegaldia eta erakustaldia. 13:00. XVII. Literatur lehiaketako sari banaketa.

IRURA

10:00-14:00. Artisan eta janari azoka. 25 postu baino gehiago. 11:00. Txokolatezko tarten lehiaketa, etxetik eramanda. 13:00ean sari banaketa.
12:00. Tio Teronen semeak taldearen emanaldia: *Festamentua*.

LEABURU-TXARAMA

11:00. Senidetze festa, Larresororekin.

Dantzariak, pilota partidak eta toka. frontoian 14:00etan bazkaria herriko ostatuan.

ORENDAIN

17:30. Solasaldia adinekoen bizi esperientziez, Arantxa Iturbek gidatuta.

TOLOSA

12:30. MUSIKARIA: Arimaz orkestra saxofoiarekin, Santa Maria elizan.
20:00. Kontzertua Bonberenean: Michel Coup duo. Sarrera: 8 euro.

ASTELEHENA MAIATZAK 20

IBARRA

18:00. *Errepresioa sare sozialetan: armiarma operazioa* hitzaldia, gaztetxean.

IRURA

18:00. Hitzaldia herri-eskolako aretoan: *Zurrunmurrux matxistei aurre egiten*.

TOLOSA

18:00. Odol ematea, kultur etxean. Ordua hartzeko txartelak, 17:30ean.
19:00. MUSIKARIA: Tolosako eta Beasaino ikasleen elkartruke kontzertua, musika eskolan.
19:00. Elkarretaratzea, Plaza Zaharrean, Maroko Mendebaldeko Saharatik at.

ZINEMA

'VITORIA, 3 DE MARZO'

Ostirala (22:00)
Larunbata (19:30 / 22:00)
Astelehena (21:00)
Gurea antzokia, Amasa-Villabona.



Igandea (19:30 / 22:00)
Astelehena (20:30)
Leidor aretoa, Tolosa.

'ÓTZI EL HOMBRE DE HIELO'

Larunbata (19:30 / 22:30).
Zine foruma, jatorrizko bertsioa, gaztelarazko azpituluekin.
Leidor aretoa, Tolosa.



'TERRA WILLY: PLANETA EZEZAGUNA'

Igandea (17:00).
Haurrentzako zinema.
Leidor aretoa, Tolosa.



BIKOITZA GOZATU VARILUX SOLUTIONS-ekin

ZURE 2. LENTE PROGRESIBOAK
BARNE



VARILUX



Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

R.P.S. 17/15 ILG.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com



**Zorionak
neskak**



BEÑAT IGUARAN

*Egun hauetan zenbat argazki
Irabazi den kopari
Eta Anoeta zeinen polita
Zutik, saltoka, kantari
Baina albiste bat irakurrita
Bueltak eman buruari
Gizonezkotan irabazleak
Milioi bat omen du sari
Nesketan berriz kopa bat eta
Bi muxu erreginari
Januzaj, Rullik, nahiz sarri galdu
Fama ta kartera handi
Lanean edo ikasten berriz
Nerea, Ane, Nahikari!
Hemendik urte batzuetara
Ea ez garen hontaz ari*



Doinua

Kintak jarrita
ondorenia

**Hezkuntzan askotan
esaten den moduan,
pertsona bakoitzak bere
esperientzia, irrika,
beldur eta kezkaz
betetako motxila
darama (...) Haur horiek
isilpean mantentzen
dutena jasatea, ezin
liteke edozein
motxilatari garraiatu.
Horrelako egoerak
ez identifikatzeak
duen arriskuaz
ohartuta al gaude?**

Motxilak

Motxila berarekin daramatzat ia 12 urte, ezin aldatu. Egunero hustu eta bete, alde batetik bestera eramane... askotan bizkarra mindu arte. Baina, Altus, Kanken, Eastpak,... ez dira bizkarraren eramaten ditugun motxila bakarrak. Hezkuntzan askotan esaten den moduan, pertsona bakoitzak bere esperientzia, irrika, beldur eta kezkaz betetako motxila darama.

Zergatik kontatzen di-zuedan hau? Ikasleek dakarten motxila kontuan hartu behar dela esaten digutenean, askotan huts egiten dugulako. Motxila horiek garraiatzen dituzte, haur bakoitzaren bizitza-istorio eta esperientziak; egiten ditugun ikasle erradiografieta, askotan, ez dira ñabardura guztiak antzematen.




**IÑIGO IRURZUN
IRAKASLEA**

Duela egun batzuk, klaseak amaitu, eta ikasle guztiak, pixkana, gelatik ateratzen hasi ziren. Kerman azkena gelditu zen, eta matematikako liburua motxilan sartzeaz ez ahazteko eskatu

nion. Negarrez hasi zen, ez baitzuen etxera joan nahi. Bere etxeko lanak ez ziren 42. orrialdeko problemak. Anaia txikiari bazkaltzen lagundu behar izaten dio, eta, ohetik mugitu ezin duen amonari, bazkaria eman eta komunera lagundu behar dio egunero. 12 urte besterik ez ditu.

Etxeko zamak kudeatzea helduaro-ko kontua omen da, baina, zenbat ikasle egongo ote dira, Kermanen egoera berdinean? Haur horiek isilpean mantentzen dutena jasatea, ezin liteke edozein motxilatari garraiatu. Horrelako egoerak ez identifikatzeak duen arriskuaz ohartuta al gaude?

KOMIKIA GORKA SALABERRIA



Aldaketaren pausoak

Azken boladan, sorpresa galanta hartu dut nesken kirolean arrakastak nola bizi diren ikusi dudanean. Orain arte, nahiz eta arrakastak jaso, ez ziren bizi ziren diren bezala bizitzen eta ospatzen. Arraunean, futboleak, trial bike-eak, gimnastika erritmikoan, ... Hainbat kiroleko txapelketetan postu oso onak lortu izan dituzten arren, herriak ez zekien.

Eta, ez zekien, ez zelako argitaratzen eta ez zitzaizkiola garrantzirik ematen. Senitarteko eta lagunak bakarrik ziren horren berri zutenak. Badirudi gauzak aldatzen hasi direla, eta emakume kirolarien



NATALIA GARMENDIA
MUSIKARIA

berri badaukagula. Gehiago esango nuke: orain, beraien poztasuna konpartitzen dugu kirolariak ez garenok ere, batetik, kirolean zerbait garrantzitsua lortu dutelako eta, bestetik, emakume irabazleak direlako.

Eta, niretzako, hori da aldatzen hasi dena: emakumeoi irabazle moduan begiratzen hasi zaizkigula. Eta, bazen garaia. Emakume asko poztan dira gizonezkoen kirol arrakastekin; ez zait hainbestearainokoa iruditzen, eskatzea, alderantziz ere gerta dadila. Eta gertatzen hasi da. Eskerrik asko, duela urte asko hau hasi zenuten guztiei.

Badirudi gauzak aldatzen hasi direla, eta emakume kirolarien berri badaukagula. Gehiago esango nuke: orain, beraien poztasuna konpartitzen dugu kirolariak ez garenok ere

EGURALDIA



GAUR

Giro fresko eta euritsua. Ipar-mendebaldeko haizearen eraginpean izango gara egun osoz, non tarteka zakar joko duen eta, horrekin, batetik, zeruan hodeiak nagusituko dira eta, bestetik, tenperaturen beherakada oso nabarmena izango da.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

Hodei hauek eurria erruz utziko digute, batez ere, egunaren lehen zatian, non ekaitzak jo dezakeen. Bigarrenetan zaparradak tartekatua izango dira, baina oraindik mardul botatzen jarraituko du.

Tenperatura maximoa asko jeitsiko da, eta gehienez 12-14 gradutara iritsiko da, eguneko erdiko ordutena.

BIHAR

Giro fresko eta bustiarekin jarraituko dugu. Hodeiak nagusituko dira zeruan, eta zaparrada giroa izango dugu. Euri gehien, batez ere, egunaren lehen zatian botako du. Egunaren bigarren zatian zaparrada tartekatua izango da, eta ahulagoak izango dira. Ipar-mendebaldeko haizea zakar ibiliko da, eta horrekin tenperatura maximoa freskoa izango da, eta nahiz gradutxoaren bat gora egin, eguneko erdiko ordutan 13-15 graduan joko du goia.

ETZI

Antzeko giroa, zeruan hodeiak nagusi. Euria utziko dute egun osoan, baina euri gehien goizean eta arratsaldearen erdira arte botako du; tarteka zaparrada mardulak. Haizeak ipar-mendebaldetik jotzen jarraituko du, egunaren hasieran zakar eta amaieran indarra bat galduz. Termometroek balio freskoetan jarraituko dute: maximoak 12-14 gradu artean.

OSTIRALA
17



IGANDEA
19



LARUNBATA
18



ASTELEHENA
20



IRAGARKI LABURRAK



LANESKAINTZAK

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da, Tolosaldeko taberna batean aritzeko. 647 44 63 63.

Kamioilaria. LC+E gidabaimenak eta CAPa dituen esperientziadun kamioi gidaria behar dugu. Baldintza onak, epe luzerako kontratua. Deitu 627 19 75 24 zenbakira.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

FARMAZIAK



MAIATZAK 17, OSTIRALA TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.

MAIATZAK 18, LARUNBATA IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria kalea, 24. Telefonoa: 943 67 3274.

MAIATZAK 19, IGANDEA TOLOSA

Egunekoa. Edurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.

MAIATZAK 20, ASTELEHENA TOLOSA

Egunekoa. Jesus M^a Echeveste Elosegui. Gernikako Arborearen lorategiak, 3. Telefonoa: 943 65 10 40.

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:

TOLOSA • L. Azpiroz Galarza.
Amarotz auzoa, 9.
Tel.: 943 67 5118.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Pasahitza magazina.

Iker Ibarluzearen eskutik eguraldia, solasaldi politikoa, Tolomendiren tarteak.

11:00. Hamaiketako. Tolosako berriak.

12:00. Entzuteko jaioak. Musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

21:00. Mingaina Txulora. Erotikari buruzko saioa Jon Imanol Etxabe sexologoarekin.

LARUNBATA

10:00. Trikitia.

14:00. (H)ari naizela. Imanol Artola Felixekin bertsoaritzari buruzko saioa.

16:00. Entzuteko Jaioak.

17:00. Kokondo. Musika saioa.

18:00. Entzuteko Jaioak.

IGANDEA

10:00. Asteak utzitako onena.

16:00. Entzuteko Jaioak.

17:00. Kantazgora. Musika saioa.

18:00. Entzuteko Jaioak.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza magazina. Iker

Ibarluzearen eguraldi iragarpena, asteburuko errepaso eta bidaiariaren tarteak, Iker Iriartekin.

11:00. Hamaiketako. Alegialdeko berriak.

12:00. Entzuteko jaioak. Musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

107.6 fm

www.ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko

16:30. 1,2,3 Hemen da Miru

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Gipuzkoako Hauteskundeak 2019

(Maria Valiente - Elkarrekin - Podemos)

22:30. Izerditan (Dantza garaikidea)

23:30. Gaurkoan Tolosaldeko



Urte askoan

Emilioren urtebetetzea. Urte askoan eta muxuak
Amasa-Villabonatik! Maite zaituztegu!



Zorionak!

Ondo ospatu eguna.
Pellok eta gainerako lagunek ere
urtebetetze ona opa dizute!
Oinak hoztu gabe ibili!


**ZORION
AGURRAK**

943 65 56 95 · ataria@ataria.eus



NAIIRA
estetika zentroa

943 650 448 - 676 285 761
SAN FRANCISCO
PASEALEKUA, 35 • TOLOSA





Audi Q3 berria

hilean 290 eurotik*

Iragana idealiza dezakezu, edo etorkizuna aurreikusten saiatu. Edo, onenaz goza dezakezu, orainaz. Eta, horretarako, ez da Audi Q3 berria baino ezer hoberik, irudi askoz ere deportiboagoarekin, eta Audi virtual cockpit erakustaldi birtual eta digitalarekin; MMI touch pantaila handia, Audi Connect eta laguntza sistema berritzaileak, lehen aldiz modelo honetan txertatuak. Orainaldiaz gozatzeko behar duzun guztia.

Autowag Tolosa

Usabal industrialdea, zenbakirik gabe
20400 Tolosa
943 67 35 81

Audi Q3 35 TFSI 110kW (150 CV) 6 abiadura. CO2 igorpenak (g/km): 139tik 140ra (NEDC: 156-169). Batezbesteko kontsumoa (l/100km) 6tik 6,1era.

* Audi Financial Services-ek kalkulaturako eskaintza, Audi q3 35 TFSI 110kW (150 CV) 6 abiadurako batentzat; 36 hilabete eta 45.000 kmko Renting kontratu bidez, 5.354 euroko diru sarrera eginez, Volkswagen Renting S.A. ren bitartez. Kuotak eta sarrerak ez dute BEZik. Gurpilen aldaketa ez dago eskaintzan sartuta. Audiren mantentze sare ofizialaren mantentze eta higitze zerbitzu guztiak barne, bermea barne (matxuren konpontzea), arrisku orotarako aseguruia frankiziarik gabe, eta bidaian laguntza kontratatutako epealdian. Beste bertsio eta ekipamendu batzuentzat, egin kontsulta zure Audi Kontzesionario ofizialean. 2019/05/31ra bitarteko eskaintza. Audi Financial Services Volkswagen Finance S.A. EFC-k komertzializatutako marka da.